

Paisaiaren Katalogoa
Catálogo de Paisaje



Euskadiko Paisaia
Paisaje de Euskadi

ZURE PAISAIAREN HITZETAN, ZU;
ZURE HITZETAN, PAISAIA.
TU PAISAJE HABLA DE TI.
HABLA POR ÉL.

Balmaseda – Zalla

MEMORIA
2012ko apirila



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

Paisaiaren Katalogoa
Catálogo de Paisaje**Balmaseda - Zalla**

AURKIBIDEA

1	BALMASEDA - ZALLA AREA FUNTZIONALEKO PAISAIA	5
1.1	Lurralde-eremua	7
1.2	Paisaia baldintzatzen duten faktore naturalak.....	9
1.2.1	Geologia	9
1.2.2	Geomorfologia	9
1.2.3	Klima.....	10
1.2.4	Hidrografia	10
1.2.5	Landaredia.....	11
1.3	Giza faktoreak: kolonizazioaren prozesu historikoa eta paisaian duen eragina	12
1.3.1	Balmaseda – Zalla – Gueñes	12
1.3.2	Gordexola	14
1.3.3	Sopuerta	15
1.3.4	Galdames	17
1.3.5	Turtzioz	18
1.3.6	Karrantza	19
1.3.7	Lanestosa	21
1.3.8	Artzetales.....	21
1.4	Gaur egungo paisaia	23
1.5	Paisaiaren adierazpen artistikoa.....	25
1.5.1	Lehenengo agerpen artistikoak	25
1.5.2	Pintura	25
1.5.3	Argazkia.....	28
1.5.4	Literatura.....	31
1.5.5	Bidaia- eta turismo-gidak	34
1.6	Paisaia esanguratsuenak	37
1.6.1	Ordunteko mendilerroa	37
1.6.2	Ubal mendilerroa	37
1.6.3	Calera ibai-harana	37
1.6.4	Raneroko haitzak.....	37
1.6.5	Armañon – Alen	38
1.6.6	Karrantzako arroa.....	38
1.6.7	Artzetales.....	38
1.6.8	Aguerako Harana.....	39
1.6.9	Ubieta / Zipar mendikatea	39
1.6.10	Sopuerta	39

Paisaiaren Katalogoa
 Catálogo de Paisaje

Balmaseda - Zalla

1.6.11	Galdames	40
1.6.12	Grumerango mendiak.....	40
1.6.13	Balmaseda.....	40
1.6.14	Zalla - Gueñes	41
1.6.15	Otxarango Harana	41
1.6.16	Sopuerta-Zaramillo haizpitarteak.....	41
1.6.17	Quadra-Lakabex	41
1.6.18	Herrerias iba-harana.....	41
1.6.19	Aiega ibai-harana.....	42
1.6.20	Zalduko Harana	42
1.7	Paisaian gehiago eragiten duten jardueren eta prozesuen dinamikak	43
1.7.1	Tontorretako eta goi-kotetako dinamikak	43
1.7.2	Hegalak eta erdi-kotak.....	43
1.7.3	Haran-hondoa eta behe-kotak.....	44
1.7.4	DPSIR azterketa	44
1.8	Paisaiaren bilakaera, gaur egungo joera sozioekonomikoen eta ingurumeneko joeren arabera. 47	
1.8.1	Tokiko basoak.....	47
	Pagadiak	47
	Hariztiak	47
	Artadiak	48
1.8.2	Baso-guneak.....	48
1.8.3	Larreak.....	48
1.8.4	Nekazaritza.....	49
1.8.5	Hiri-eremuak	49
1.8.6	Ondorioa	51
1.9	Mehatxuak eta aukerak	52
1.9.1	Mehatxuak	52
	Kultur ondarea galtzea	52
	Tipologia tradizionalak desagertzea	52
	Hiri jarraituak sortzea	52
	Harrobiak eta zaborteziak	52
	Egur-industria desagertzea	53
	Laborantza eta nekazaritza-jarduera tradizionalak bertan behera uztea	53
	Dibertsifikaziorik eza baso-jardueretan.....	53
	Azpiegitura berriak gainezka dauden eremuetan	53
1.9.2	Aukerak.....	53

Paisaiaren Katalogoa
Catálogo de Paisaje

Balmaseda - Zalla

Balioan jartzea eta ingurumena babestea	53
Paisaia-balioei lotutako turismo-ustiapena	54
Kultur ondarea babestea, zaharberritzea, eta balioan jartzea	54
Kadagua ardatz egituratzailea	54
Industria-hondarrak eta hutsik dauden industria-lurzoruak berreskuratzea	54
Nekazaritza-jarduerak berreskuratzea	54
Nekazaritza eta abeltzaintzako eraikinen, industrien eta azpiegituren integrazio bisuala	54
1.10 Paisaiaren ebaluazioa	55
1.11 Dokumentazio grafikoa	57

1 BALMASEDA - ZALLA AREA FUNTZIONALEKO PAISAIA

Lana deskribatzen hasi aurretik, paisaiari eragiten dioten osagaiak labur azaltzea komeni da, paisaia baten deskribapenerako oinarritzkoa baita. Gure kasuan, gainera, deskribapena lurraldea osatzen duten aspektuetatik abiatuta itxuratzen da. Paisaiaren arteko desberdintasunak lurralde-osagaiak, beren ezaugarriak eta banaketa espazialak zehazten dituzte.

Paisaiak hainbat faktoreren arabera indibidualizatzen dira; izan ere, faktore haiek ezaugarri geografiko ezberdinak dituzte, eta baita une ebolutibo jakinak ere, haien antolamendu espaziala eta morfologikoa baldintzatzen dituztenak. Elementu-unitate konposatu ezberdinak direla jotzen da konfigurazio ezagunetan multzokatzen eta lurraldearen gainazala estaltzen duen mosaiko batean zehazten direnean, ezaugarri hauen arabera: lurzoru-erabilerak, erliebe-motak, azaleko uraren banaketa, etab. Funtsean geomorfologiaren eta klimaren arabera zehazten dira, baina baita perturbazio naturalen eta artifizialen eraginez ere.

Paisaiaren osagaiak hiru multzo handitan bana daitezke: fisikoak, biotikoak eta giza jarduerak. Hala, osagai fisikoak eta biotikoak dira paisaia baldintzatzen duten faktore naturalak.

Faktore natural fisikoen multzoan, honako elementu hauek topatuko ditugu: lurra erliebea edo itxurak, lurzoruaren azalera, arroak, ibilguak eta ur-geruzak, elurra, izotzak, etab.

Erliebeak (mendiak, lautadak, kostak...) eragin handia du paisaian, batik bat bisualki, erliebearen gainean finkatzen eta garatzen baitira gainontzeko osagaiak. Bertan ematen diren prozesu gehienak baldintzatzen ditu, eta, hortaz, nahitaezkoa da paisaiaren funtzionamendua ulertu ahal izateko. Landarediaren oinarria da, eta baita horren baldintzatzailea ere.



Arroek eratzen dute litosfera, eta horren osaerak eta ezaugarriak zehazten dute erliebea eratzeko prozesuetan izango duen portaera.

Bestalde, baldintza atmosferikoak (zerua) ere paisaiaren parte dira, eszenatokia osatuz edo zenbait meteoroloژی eraginez (hodeia, lainoa, euria, etab.). Horrela, baldintza klimatiko orokorrak sortzen dira: mediterraneo kontinentalak, mediterraneo litoralak, mendiko atlantikoak...

Ingurumen-arriskuek ere —uholdeak, luiziak, eta lur-higadurak— paisaiaren osaeran eragina izan dezakete.

Faktore natural biotikoen multzoan, landaretza espontanea eta laboratua topatuko ditugu nagusiki.

Landarediak izaera ezberdineko erliebeak berdintzen ditu, edo paisaiak bereizi, erliebea oso uniformea denean. Landarediak paisaian duen garrantziaren muina landare-komunitateen multzoen



Paisaiaren Katalogoa Catálogo de Paisaje

Balmaseda - Zalla

Itxura da; landare horiek zenbait ezaugarri fisionomiko dituzte gainera, ingurumen-faktoreek eta giza jarduerak baldintzatuta.

Orokorrean, fisionomia partikular baten formazio mono edo pluerispezifiko moduan hauteman daitezke, edo indibiduo isolatu moduan. Oinarrian, landarediak eta lurzoru-erabilerek lurraldeko paisaia itxuratzen dute, eta, horrenbestez, aldakortasunezko faktore bat dira, haren osaeran.

Fauna eta etxe-abereak paisaiaren parte ere izango lirateke; edonola ere, haien kokapena ezin aurreikusi izateak balorazio egokia oztopatzen du.

Giza jardueren barruan, azpiegiturak, eraikinak eta urbanizatutako areak dira paisaiaren eta lurraldearen gaineko gizakiak utzitako arrastorik argienak. Hiri-eremuen kasuan, gainera, argi dago gizakiak eraikitako paisaia dela.

Horrela, badira paisaiaren osaera eta itxura baldintzatzen duten zenbait faktore: hiri-kokalekuak lurraldean nola ezartzen diren, ibaietan edo presetan sortutako ur-jauziak eta komunikazio-azpiegiturak —errepideak, esaterako—. Gainera, tratatzen dizkiguten ibilbideetan barrena joaterakoan, paisaiarekin goza dezakegu.

Baina nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-jarduerak ere helburu argia du, eta, lehen esan bezala, lurzoruari ematen zaion erabilerak gunearen paisaia definitzen du.

1.1 Lurralde-eremua

Balmaseda - Zallako area funtzionala Euskal Autonomia Erkidegoaren mendebaldeko muturrean dago, 429,71 km²-ko azalera hartzen du eta 30.000 biztanle inguru ditu, 10 udalerrri hauetan banatuta: Artzetales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Gueñes, Karrantzako Harana, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz eta Zalla. 70 biztanle/km²-ko dentsitatea du, autonomia erkidegoarena baino bost aldiz txikiagoa.

Ingurune naturalaren ezaugarri fisikoak eta Bilboko metropoli-arearen gertutasunak nabarmen eragin dute lurraldearen bilakaeran eta garapenean. Eremu menditarra da, gehienbat, eta lau haranetan banatuta dago: Karrantzako Harana; Turtziozko Harana; Artzetalesko Harana eta Kadaguako Harana. Aspektu horrek barne-komunikaziorako zein mugakideekin komunikatzeko aukerak murrizten ditu.

Ingurumenaren ikuspuntutik, mendebaldeko udalerrriak dira kalitate handieneko balio naturalak mantentzen dituztenak. Alderantziz, Kadaguako Haranak ingurumen-arazo larriak erakusten dizkigu, industrializazio gogor baten ondorioz kalitate baxuko eremuak agertu baitira. Kadaguako ardatza da—ekialde-mendebalde orientazioarekin— Bilbo Hiriarekin komunikatzeko bide naturala. Ibaiaren bi ertzetan, area funtzionaleko biztanleriaren parte handi bat finkatu da (%60), eta baita jarduera ekonomikoa ere (%70). Lurraldearen gainontzekoak ez du lotura hain zuzenik Bilbo Hiriarekin.


Kadagua Haraneko Gueñes, Zalla eta Balmaseda udalerriek Bilbora jotzen dute. Ekonomia tertziario garrantzitsua dute, eta industria-sektorean ere jarduten dute. Bestalde, Karrantzako Harana, Lanestosa, Turtzioz eta Artzetales udalerrriak Kantabriara gehiago hurbiltzen dira, geografikoki, eta landa-ezaugarriak mantentzen dituzte, joera negatiboa eta zahartze-indize altuak dituen biztanleria batekin. Hala eta guztiz ere, udalerrri horiek biztanleriaren parte bat mantentzea lortu dute, oraindik ere nolabaiteko garrantzia ekonomikoa duten lehen sektoreko jarduerengatik, bereziki. Gainontzeko udalerrriak —Sopuerta, Gordexola eta Galdames— trantsiziozko eremuak dira, eta lehen alderatu ditugun bi jarduera-eremuen antzeko ezaugarriak eta arazoak erakusten dizkigute.

Mendebaldeko udalerrietan, lurzoruaren okupazioa eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak dira nagusi, nekazaritzako elikagaien industria txikietan. Alderantziz, Kadaguako Haranean ekonomia tertziarioagoa nagusitzen da, eta industria-sektorea ere aipagarria da, egur- eta altzari-sektoreei dagokienez, gehienbat.

Kadaguako Haranetako udalerriek hiri-izaerako biztanleria kontzentratua eta etengabea erakusten digute, Balmasedatik Zaramilloraino. Hazkundeak zona lauak eta haranaren hondoa aprobe txatu ditu, zabalera handiagoko zonetara zabalduz. Bilbo Hiriaren sarbide errazak nolabaiteko egoitza- eta industria-hazkundera eragin ditu area osoan; baina hazkunde hori desorekatua izaten da, maiz, eta erabilera bat baino gehiago ematen dira aldi berean. Alderantziz, landa-udalerriek hiri-garapen defizitarioa erakusten digute, eta biztanleria sakabanatuagoa, baserriaren lurralde-antolamenduari lotuta dagoena.

Paisaiaren Katalogoa
 Catálogo de Paisaje

Balmaseda - Zalla



Erabileren banaketa, landaredia-estalduraren arabera

Erabilerei dagokienez, espazioaren parte handi bat baso- eta natura-azalerek osatzen dute, eta jarduera-eremu horretan nagusi diren beste erabilera batzuekin batera ematen dira, hala nola abeltzaintza-erabilerekin eta behi-aziendari lotutako abeltzaintza estentsiboko abeltzaintza-jardurekin. Aipatzekoa da eskualdeak mendi publikoen azalera handiena hartzen duela, eta baita erabilera publikorako aitortutako mendi-hedadura handiena ere, Bizkaiko lurraldean.

Azken finean, Balmaseda-Zalla area funtzionalak ondo bereizitako bi zona ditu, abiapuntu eta arazo hauekin:

- **Ekialdeko zonak** landa-izaera nabarmena du eta Lanestosa, Karrantza, Turtzioz eta Artzentales herriak biltzen ditu; ingurune naturalari eta lehen sektoreari lotuta dago.
- **Mendebaldeko zonak** izaera antropizatuagoa du, eta Balmaseda, Zalla, Gueñes, Sopuerta, Galdames eta Gordexola biltzen ditu; zuzenean lotuta dago Kadaguako bide-korridorearekin, lehenagoko tren-azpiegiturekin, eta Bilbo Hiriko presioaren eragina jasaten du.

1.2 Paisaia baldintzatzen duten faktore naturalak

Lehen esan bezala, milaka dira paisaiaren itxuraketan eragiten duten baldintzatzaile naturalak. Faktore ezberdinek ardatz natural berean egiten dute bat; ardatz hori lurraldearen hezurdura osatzen duten erliebe-itxuretan oinarritzen da. Gero, asko dira basamentuarekin interakzioan diharduten faktoreak: erliebearen azal moduan jarduten duten tipologia edafologiko ezberdinei esker, landare-espezie jakinek aurrera egingo dute. Faunak (agente biotikoak) babesa eta bizirauteko errekurtsuak topatuko dituen habitata eratzen du landarediak. Horri guztiari klimaren eragina batu behar zaio (agente atmosferikoak), atsedetik gabe modelatzen baititu erliebearen formazioak. Agente natural ezberdinen arteko elkarreragin horiek sistema naturala eratzen dute, eta bertako elementuetako batean emandako aldaketek beste osagaietan ere aldaketak eragiten dituzte. Eszenatoki honek giza jardueren kokaleku gisa balio du, tradizioz zona irisgarriagoetan lokalizatu bada ere, haran ondoetan eta lautadetan, esate baterako. Hori horrela, akzio antropikoak ingurune naturalaren eraldatze partikularra eraman du aurrera, eta haren intentsitatea aldatu du, etapa historiko bakoitzaren egoera sozioekonomikoak zehaztuta datorrena, aldi berean.

1.2.1 Geologia

Ikuspuntu geologikotik, Enkarterriak Euskal-Kantauri Arroa izeneko eremu tektonikoan kokatzen da, Bizkaiko antiklinorioan, ipar-ekialdetik hego-ekialdera, Bizkaiko erliebearen egitura eratuz. Oso higatuta dagoen antiklinorioa da, eta hareharrizko tontor handi batzuetara murriztu da, arroiletan zatikatuta, edo arroiletan, ibaietatik. Are funtzionalean, beraz, segidako ibarrak, sakanak, muinoak eta sakonuneak ikus ditzakegu, mendi-erliebez inguratuta, neurri handiagoan edo txikiagoan. Hala, higadura selektiboko modelatzearen adibide argi bat da, nagusiki monoklinala den egitura baten arabera kokatutako erresistentzia-mota ezberdineko material kretazeoak eragindakoa. Hori horrela, area funtzionalaren erdian lerrokutzen diren kubetak hutsik geratu ziren, bereziki margetan eragin zuen higaduraren ondorioz. Kubeta horiek terrazetan mailakatutako gordailu alubialez estalita ageri dira, eta, kanpoaldera, mendi-malkarren oinean dauden glazisekin bat egiten dute.

Estratigrafikoki, lurraldeko ia material guztiak Mesozoikokoak dira, Aptiar eta Albiar garaiak hartzen dituen Behe Kretazeokoak, bereziki. Kretazeoko material horietan arrezifeetako eta paraarrezifeetako (Urgondarrak) kareharriak ageri dira, lutitak, limolitak, konglomeratuak, markak eta harreharriak (Supraurgondara) eta argiolitak, limolitak, hareharriak, margak eta kareharrizko markak (Purbeck-Weald).

Hiru azpiunitate egitural bereiz ditzakegu:

- Galdamesko eta Trianoko Mendien antiklinala.
- Karrantzako antiklinala
- Ganekogortako antiklinala

Arean, balio geologiko handiko zona karstikoak daude; aipagarriak dira honako hauek:

- Karrantzako- Los Jorrios zonako area kastikoa
- Bizkaiko Meatzaldeko- Trianoko Mendien area karstikoa.
- Luxar-Alen lerrokadura
- Beste txikiagoa bat, Sopuertan

1.2.2 Geomorfologia

Geomorfologiari erantzunez, Enkarterriek lau haranetan egituratzen dira: Karrantza, Turtzioz, Artzentales eta Kadagua; morfologia nahiko aldapatsua da, eta segidako muinoak eta mendiak ageri dira zabalera aldakorreko haranetan. Haran horiek ezaugarri fisiko homogeenak dituzte, eta errekurtsu naturalei eta lurzoru-erabilerei aprobetxamendu berak ematen dizkiete.

Eremuak orografia malkartsua du, eta %30etik gorako maldak ditu, lurraldeko zati handiengan (Ordunte eta hegoaldeko muga, iparraldea eta Galdamesko eta Trianoko gailurrak). Lurraldearen gainontzekoak % 10 eta % 30 arteko maldak ditu, eta ibaietako haran-hondoak eta muino txiki batzuek bakarrik dute % 5eko malda baino txikiagoa. Malda da, neurri handi batean, jarduera jakinen garapena baldintzatzen duen faktorea, izan ere, % 30etik gorako malda duten lursailak egonkortzea zaila da, eta beraz, aintzat hartu beharrekoa da, areako jardueran planifikatzerako garaian.

Bestalde, lurraldearen fisiografia oso ezberdina da, zona menditsuak eta haran estuetako ibilguak bereizgarri dituela. Ibai-modelatzea haran guztietan azaltzen da, ugaritasun handiagorekin edo eskasagoarekin, batez ere Kadagua eta Herrerías ibaietan, non lautada alubiala ondo garatuta dagoen eta maila ezberdinetako terrazak mantentzen diren. Barruti bakoitzeko paisaian, tontor batzuk erreferentzia-puntu gisa balio dute, izan ere, itzala ematen diete bertako herri eta haranei. Tontor hauetaz ari gara: Ganekogorta (998 m) eta Alonsotegi; Kurutzaga (802 m) eta Galdames; Alen mendia (798 m) Sopuertan; Kolutza (879 m) Balmasedan; Raneroko haizak (719 m) Karrantzan, edo Mazo (814 m) Lanestosan.

1.2.3 Klima

Atlantikoko Haranetan eta Iparraldeko Mendietan daude Enkarterriak, eta Atlantikoko klima du, bereziki, oso hezea eta epea. Zonako klimaren prezipitazio-erregimena hezetik hiper-hezera kalifika daiteke, onbrotipoetan eta onbroklimetan; eta tenperatura-erregimena, aldiz, erdi-epeletik supra-epelera, termotipoetan.

Urteko batez besteko tenperatura epela da, 14 gradu ingurukoa; batez besteko tenperatura altuenak abuztuan ematen dira, 19 gradu inguruan, eta batez besteko tenperatura baxuenak, berriz, abenduan edo urtarrilean, 9 gradu inguruan. Izozte-arriskua ez da oso handia, udazken amaieratik udaberri hasierara arte eman daitezkeen arren, altitude gorenetan eta eguzki gutxiko zonetan.

Tokiko mailan, aldaketa eta berezitasun nabarmenak ematen dira. Tenperatura- eta prezipitazio-contraste nabaria dago, altitude ezberdinen eta faktore orografikoa eragiten duen ipar-ekialdeko hezetasunez betetako haize-esposizio handiagorenen edo txikiagorenen arabera. Area guztiko altitude txikiak Kadaguako Haranean ematen dira, eta, horrenbestez, tenperatura epelenak dituen zonetako bat da. Bestalde, kosta eta itsasoa gertu daude, eta tenperaturak leunagoak dira; hori dela eta, Barbadun ibai-haranean tenperaturak gorantz egiten dute, eta prezipitazio-indizea zertxobait txikiagoa da.

Urteko batez besteko prezipitazioak 1.100 eta 1.700 mm artekoak dira; gehieneko prezipitazioak abenduan ematen dira, eta, gutxienekoak, berriz, uztailean. Elur-prezipitazioak ez dira oso ohikoak, ezta oso iraunkorrak ere; urtarrilean edo otsailean ematen dira gainera, kosta altuenetan. Ez dago lehorre-aldirik.

Beste ohiko fenomeno batzuk, urte osoan, goizeko lainoak dira, oso iraunkorrak haran-hondoko zonetan, eguerdi aldea igaro arte "altxatzen" ez direnak. Ugariak dira Kadagua eta Karrantza ibai-haranetan, eta horrek hezetasun-maila areagotzea dakar.

1.2.4 Hidrografia

Area funtzionaleko ibai guztiak isurialde kantauriarrekoak dira, eta euri eta elur erregimena-erregimen ozeaniarra erakusten digute. Sare hidrografikoa trinkoa da, Ordunteko Mendietatik jaisten diren ibai ugariekin eta Kantauri Itsasoraino doazen gainontzeko mendi-tontorrek. Areak, plubiositate handia, malda gogorrak, ibilbide motza eta haranen mehertasuna dira ezaugarri nagusienak; hori dela eta, ibaiak uholde-joera dute, eta higadura-ahalmen handia, landare-estaldurak geldiarazten duena, neurri handi batean, mantentzen denean.

Orokorrean, goi-ibarrak kalitate onekoak dira eta behar bezala mantentze dituzte ibaiertzak; hala eta guztiz ere, azken tarteetako degradazioak loturarik gabe uzten ditu zeharkatzen doazen unitate fisikoak eta ibilbidean ukitzen dituzten eremu naturalak. Dena den, hiriguneeen kokaleku diren beheko tarteek antropizazio-maila handia erakusten dute, eta kalitate txarreko urak dituzte.



Hona hemen jarduera-eremuko ibairik garrantzitsuenak, mendebaldetik ekialdera: Calera, Karrantza, Aguera, Barbadun, Galindoko eta Kadaguako goi-ibarrak (Herrerias eta Izalde ibaiadarrekin).

Lurpeko hidrologiari dagokionez, aipatu behar da oso garrantzitsua dela zona karstiko guztietan, hala nola Trianoko Mendietan, Alen zonan, Raneroko haitzetan eta Los Jorrios mendietan. Areako eta areaz kanpoko herri eta auzo guztiak hornitzeko lurpeko uren eta iturburuen bilketa ugari daude gainera, eta etengabe instalatzen doaz, Edateko Ura Tratatzeko Plantaren tratamenduaren ostean, kontsumo-kalitatea bermatzeko.

1.2.5 Landaredia

Area Funtzionaleko landaredia eskualde eurosiberiarrekoa da, estai muinotarraren eta menditarraren bioklimarekin. Estai muinotarra 600 metrora igotzen da, eta estai menditarra, berriz, 1.300 metrora. Area funtzionaleko substratu, material eta morfologia aniztasunak —eta gizakiaren eraldatze-jarduera trinkoak— landare-paisaia ezberdinak eragiten ditu, orokorrean altitude, litologia eta intsolazio konbinazio ezberdinei dagozkienak.

Baso handietako landaredia potentziala desagertu da, eta masa etenetara baztertu. Hona hemen landare-unitate nagusienak, gaur egun:

- Baso misto atlantikoa edo hariztien eta lizarren baso mesofilitikoa (*Polysticho setiferi-Fraxinetum excelsioris*).
- Harizti azidofiloa (*Hyperico pulchri-Quercetum roboris*). Lurzoru azidoetan garatzen dira, hareharriak bezalako substratuetan.
- Pagadi basofiloa edo kaltzikola (*Carici sylvaticae-Fagetum sylvaticae*). Kareharrietan eta margetan eta kareharri margotsuetan garatzen da.
- Pagadi azidofiloa (*Saxifrago hirsutae-Fagetum sylvaticae*). 500 metrotik gora zabaltzen da, substratu azidoetan, hezetasun-bila.
- Haltzadi kantauriarra (*Hyperico androsaemi-Alnetum glutinosae*). Zona guztiko erribera-basoetako landare-mota da.
- Artadi kantauriarra (*Lauro nobilis-Quercetum ilicis*). Formazio oso trinkoak eratzen dituzte, oihanpe itxiek.
- Quercus pyrenaica ameztiak (*Melampyro pratensis-Querceto pyrenaicae*). Ordunteko Mendien hegaletan ageri da, kareharriak bezalako substratu silizeoetan.
- Quercus petraea hariztiak. Estai muinotarraren eta menditarraren artean hazten dira, kareharrizko lurzoruetan, bereziki.

1.3 Giza faktoreak: kolonizazioaren prozesu historikoa eta paisaian duen eragina

Azalpen hobeagoa emateko helburuz, eremu geografiko ezberdinetan banatu dugu atala: Hona hemen:

1.3.1 Balmaseda – Zalla – Gueñes

Hiru udalerrri hauek osatzen dute Kadaguako Harana, eta haren barruko haranek bat egiten dute beste haran batzuetako banalerroekin.

Hala, Ordunteko mendilerrotik, Turtzioz haranetik bereizten gaituen Koltza tontorrarekin (879 m), Santo Domingo mendiraino jaisten da mendikatea (718 m), Artzentalestik edo Koltzako haranetik banatzen gaituena. Bertan, Sopuertako sarrerak bakarrik eteten du Kadaguak lortu nahi izan zuen muga, eta, gero, iparraldeko mugak Urrestietako banalerrora itzultzen da berriz, tontorretatik jarraitzeko —Cinto (534 m), Artegi (542 m) eta Ubieta (632 m)— Sopuertako eta Galdamesko haranetatik banatzen gaituztenak. Ubietatik / Kurugatzatik, Arnabiz muino zaharraren ostean, gure eremua Eretzara (887 m) iristen da, eta ekialdera isurtzen duen Castaños errekatik muga eramaten gaitu.

Mendebaldeko muga Gaztelatik banatzen gaituzten Kadaguako bi ibaiadarretan dago. Horrela, eskualdeari dagozkio tontor hauek: Penalosa (654 m) iparraldean eta Picorredondo (677 m) hegoaldean.

Tontor horretatik, mendi-lerroakadurak Orduntetik ekialderantz jarraitzen du, Bandera (696 m) eta Torno (676 m) tontorrekin. Gure haranaren muga zehazten du Gordexolan, eta banalerrotik jarraitzen du, tontor txikiagoetatik, hala nola Peña (515 m), Ilso (564 m) eta Karobo (565 m). Bertan, maila txikiago batean, banaleroaren ipar-hegala jarraituko dugu. Izan ere, banaleroa markatzen duen Berbiziz santutegia Saltzedoko eta Gordexolako lehen eliza izan zen, orain azken horri badagokio ere, eta badirudi hura izan zela banaleroaren muga hegaletara lekualdatzeko arrazoia.

Mendoza mendian berreskuratzen da banaleroa, Sodupe gaineko mendi-irlan. Oso garrantzitsua da, Kadagua, Herrerias eta Zaldu ibaien helduera antolatzen baitu. Bertatik, muga Ganekogortako hegaletatik igotzen doa pixkanaka, Zaldurekin lehian, Quadra-Lakabexera iritsi eta haran guztia kontrolatzeko, Ganekogortako tontorreraino. Eszenatokia birjina eta pribilegiatua da, Eretza eta Ganeko arteko haizpitarteak Zaramillotik Soduperaino jasan dituen erasoekin alderatuz.

Giza okupazioak historiaurreko aztarnak utzi zituen Eretzan, eta Gameran alderantz doan mendizerran, baita Koltzaren oinean ere, iparraldeko isurialdean. Dударik gabe, monumentu erlijiosoak dira, eta lotuta daude tontorrek alturako bazkekin okupatu izanarekin. Use da tontor handien deforestazioa historiaurreko aro horietan hasi zela, eta, horregatik, paisaia gizatiartua da dagoeneko.

Paisaiaren eta ohitura zaharren aztertuz, ikus dezakegu babestuago dauden hegaletan sortzen direla herrixkak, haranean baino. Ustekabekorik ez izateko, bide hau eta beste batzuk begiztatu ditugu, eta badirudi, Sopuertan edo Galdamesen ez bezala, hemen ez dagoela geroago herrixka sorraraziko zituen gotorleku indoeuroparrik, nahiz eta zenbait gunetan halakorik egon zitekeela suma zitekeen: Cabana-Artegi-Zipar-Larrea tontorretan, Zallan eta Gueñesen; Luxarren, Sodupe gainean; Castillejos-Santo Domingon, Balmasedan; eta kota txikiagoetan, agian Mendozan, Sodupe gainean, Cerros del Castillon eta Castillo de Piedran. Hipotesi horiek berretsiz, Berbizizko San Juan dugu, Saltzedo eta Gordexola menderatzen zituen santutegia. Tradizioak dioenez, haraneko lehenengo eliza da, eta askotan, baselizak dauden lekuan, iraganen herrixka zahar horiek edo herrixken aurreko gotorlekuak egoten ziren.

Bitxia bada ere, Balmasedan ez dago erdi-hegaleko herrixkarik apenas. Malda gogorrek eta haien haizpitarteek halako zibilizazioak eragotzi zituztela dirudi. Hala eta guztiz ere, Pandozales, Zoco eta Jauregi ageri dira, eta baita etxe txiki isolatuak ere, hala nola Aldai, Iturriarri, Laborrieta eta Labrara, eta oso maila altuan, Bernilla. Interesgarria izango litzateke jakitea etxe isolatu horietatik

zeintzuk izan ziren herrixkak garai batean. Balmasedaren hegoaldean, esaterako, Arbiz, Zernola, Pedrera eta Eruzas eta Cenarro etxeak ikus ditzakegu.

Egoera bestelakoa da Zallan. Bertan, herrixka hauek ageri dira: Lutxako, Zolla, Patzalza, Urtetxu, Llano, Magoslera, San Cristobal, Bilbato, Perin, Arana, Montellano, Basdaga eta Herrera, iparraldeko hegaletan, eta Murga, Torremonte, Vistalegre, Intxorbe, Zokita, Breña eta Somokurtzio, hegoaldean. Horrez gain, Otxarango Harana dugu, Santibañez, Somavalle, Otxaran, Callejo herrixkek. Horiek guztiak goi-mailetan dauden herrixkak dira, eta, ezbairik gabe, haranaren historiaurrean okupatu izanaren erakusgarri dira. Badirudi Cabanaren oinean dauden horietako batzuk Magdalena, San Cristobal eta Santibañez baselizek markatutako goi-bideetan oinarritu direla.

Gueñesen, are argiago ikus dezakegu prozesua: Ubieta, Urrutira, Eskartzaga, Saratzaga, Ametzaga, Santa Marina, Norza, Taramona, Lejartza, Goikuria, eta Iburgu herriak; San Lorenzo bezain santutegi zaharrak, eta Santa Marina, Magdalena eta San Pedro baselizek markatutako bide zaharrak; hegoaldean, Berriz, Orijana, Jara, Allende, Jandiola, Arzabe edo Mendoza ditugu; eta, ekialdean, Urriaga, Garai, Trasarana, Moriza eta Iartu.

Ekialdeko haizpitarteetan, Quadra-Lakabexen eta Zaramillon, hain zuzen ere, herrixkak desagertzen dira, eta Balmasedan bezala, pasabideak defendatzen zituzten behe-gazteluei bide ematen diete; hortxe dugu Lakabengo San Miguelen adibidea.

Dirudenez, garai lasaiagoetan jada, herrixkak haranetara jaitsi eta dorretxeak agertzen hasi zirela, beren burdinolekin, errotekin eta baselizekin. Horrela, kolonizazio berri bat hasten da, ibaiari, zubiei eta bideei lotuta. Mesa, Bolunburu, Mendieta, Sollano Llantada, Santxosolo, Sodupe, Jorgi, eta Quadra-Lakabex dorretxeak agertzen dira, besteak beste, eta horrek agerian uzten du gizartea familia handietan egituratzen zela, bideak, burdinolak eta errotak kontrolatzeko. Ziurrenik, gorago dauden dorreak lehenagoko aristokrazia batenak izan ziren, esaterako: Maruri, Murga eta Somovalle.

Dorre kopuruak erakusten digu, halaber, kultura indartsuagoa dela Gordexolan. Agian, bertatik Saltzedoko Haranera hedatu zen, bertan ibaia kontrolatzea zailagoa baita. Ibaiaren dorretxe horien boterea orekatzeko sortu zen Balmaseda, zibilizazio berria aditzera ematen digun Enkarterrietako haran handia. Ziurrenik, haizpitartearen eremuan sortu zen, dorretxeak ez baitziren bertako eremuaren jabe, Zallan eta Gueñesen ez bezala.

Ziurrenik, Balmaseda izan zen Gueñesko parrokia sortzera bultzatu zuena, haraneko zentro espiritual eta herrixketako bilera-toki moduan, dorretxeek kontrolatutako baselizekin lehian, Sodupen edo Quadra-Lakabexen gerta litekeen bezala.

Lehenengo burdinolen adibidearekin jarraituz, industria-iraultzak haran-hondoa hartu zuen, eta lantegiak instalatu zituen Zallan, Balmasedan, eta, azkenik, Gueñesen. Horrela, multzo txikiak konurbazio handi bilakatu zituen, eta lehenasuna eman zion Zallari, Balmasedarekin lehiatuz, eta Gueñes bereganatzea ere lortu zuen ia.

Zallako edo Sodupeko garapen modernoak lehenengo egitura espaziala aldatu zuen, Balmaseda baitzen ordura arteko herrigune garrantzitsu bakarra, eta Gueñes, berriz, haranetako herrixken lotura. Zallaren egungo garapenak ere agerian uzten digu zein desegituratuta gera daitekeen gaurko haranaren ikuspegia, garapen modernoaren eraginez, izan ere, ia ez da hiri indoeuroparren arrastorik geratzen. Goi-herrixkak mantentzen dira ordea, asko desagertu badira ere, pinudien presioaren ondorioz —altuenak eta zaharrenak, agian—. Zorionez, erdi-hegaletako herrixkek bizirik jarraitzen dute, haraneko gotorlekuak baino baldintza hobean, gainera. Hala ere, nagusitu direnak Sodupeko, Gueñesko, Zallako eta Sodupeko konurbazioak dira, Zallako, Gueñesko eta Balmasedako industria-faktoria handien babesean.

Badirudi etorkizuneko garapenak haran-hondoa industria-guneekin okupatzen jarraitzea aurreikusten duela. Are kezkarriagoa da, udalerrri guztiak hiri-konurbazio berean batzea ibai eta errepide osoan zehar, horrela hegaletatik eta tontorretatik isolatuta geratzen baitira, bereizitako guneak desagerraraziko lituzkeen eta natura —hiriburu lineal hori alde batetik eta bestetik begitatzeko eszenatoki gisa— isolatuko lukeen etengabeko urbanizazioan.

1.3.2 Gordexola

Ayega, Herrerías eta Izalde haranek eratzen dute Gordexolako udalerria. Haran horiek Salvada mendilerroaren maila handian jaiotzen dira, eta Mena, Artzentales eta Ayala lautadak zeharkatu ostean, Koltzatik Gorbeara doan mendi-lerroakadura handia igarotzen dute, haizpitarte estuak eta alubioi-haran txikiak eratuz. Kadaguara iristean, Sodupen, Eretza-Ganekogorta haizpitarte handia zeharkatzen dute, eta Nerbioiraino eta itsasoraino heltzen dira.

Ayega eta Herrerías mendebaldetik ekialdera doaz; baina Izaldek hego-iparraldera jarraitzen du, lubaki bat zeharkatuta, Ganekogortaren oinean, oso motza den ibilbide batetik, Gordexolan.

Horrenbestez, lurraldeak mendebalde-ekialde norabide argia dauka, eta hegoaldean muga egiten du Erridia (671 m), Pando (533 m), Indubaltzako mendi-adarrak (688 m), Iero (489 m), Piedra Hincada (659 m) tontorrekin, Gamarikan (520 m) Ganekogortako mendi-hegaletara iristeraino.

Hegoaldeko "ezkutu" honek harana babesten du, eta iparraldean, Ilson (564 m) amaitzen diren Erridiako mendi-adarrak ditu, Zallarekin muga egiten duen tokian. Gero, ordea, mendilerro leun bateraino jaisten dira, Kadaguren banalerroa eratuz. Bertan dago Berbizko San Juan, Gordexolako, Saltzedoko, Zallako eta Gueñesko haranen jatorrizko parrokia.

Mendilerro leun hau Koskorran (167 m) eta Mendoza Mondola (224 m) mendi-irlan amaitzen da, Sodupen, hiru ibai hauen arteko bidegurutzean: Kadagua, Herrerías eta Izalde.

Itxura denez, haraneko toponimiak Herrerías ibaiko eskuin-bazterretik doan galtzada zahar bati erreferentzia egiten dio. Galtzadak Angulorantz eta Losako Haranerantz zihoan ziurrenik, gero Trespadermerera iristen zen galtzadatik jarraitzeko.

Era berean, Ayegako Haranak Villasana de Menara iristen zen bide zahar bat zuen. Agian, Donejakue bideko erromesek erabili izan dute noizbait, haranaren bihotzean dagoen baselizak erakusten digunez.

Tradiziorik zaharrenak dioenez, Ibarra izan zen biztanleak izan zituen lehenengo tokia. Horrek esan nahiko luke bentak edo gotorlekuak egon beharko zirela galtzadaren zenbait puntutan. Hainbatetan, erromatarren ustiapen zaharrek bide eman zieten behe-inperioko dorretxei. Gure haranak dorretxe ugari zituen, eta ibaian zeuden gehienak, galtzadatik eta zubietatik gertu, besteak beste: Largatxa, Artekona, Mazukera, Urdanlegi, Allende, Ibarra Maduria, Oxirando, Zubieta eta Zaldu. Zabalburu dorrea da erdi-hegalean dagoen bakarra.

Bestalde, haranaren hasierako okupazio horrekin kontraesanean, Berbizko San Juan santutegia dugu, erdiko mendilerroan. Tradizioak dio lehenengo parrokia izan zela, Gordexolako, Saltzedoko, Zallako eta Gueñesko haranetan. Horrek aditzera ematen du goi-kotetan erromatarren aurreko gotorleku bat egon zela, edo Goi Erdi Aroan harana abandonatu eta biztanleria gune garaiagoetan babestu zela. Teoria hori babestuko lukete hegaletako herrigune txikiak: Lanzagorta, Garai, Zabalburu, Larrea, Zubieta, Isuntza, eta Bortaza, ibaiaren iparraldean, eta Beraskola, Santxoierto, Iñarrin, Basoko, Arantzazu eta beste herrigune batzuk, hegoaldean. Gaur egun, pinudien artean ezkututatuta daude horietako asko.

Bitxia bada ere, Berbizko San Juan eta Santa Ageda dira goi-kotetan dauden ermita edo santutegi zahar bakarrak. San Esteban, San Vicente eta Isasiko Santutegia, esaterako, hegaletan eta ibarretan daude, baita San Juan parrokia ere.

Badirudi mendebaldeko hegalik gogorrenek ez zituztela herrixka txiki horiek hartzen —Lanzaborta eta Garagorta—. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, Berbizko hegoaldeko lur leunagoetan: Ibarra eta Zubieta arteko hegaletan edo Zaldu mendebaldeko hegaletan, Beraskolaren oinean.

Lurralde-okupazio mota ezberdinak antzeman daitezke; adibidez: galtzadak lagundutako ibarrak, dorretxeen jatorri direnak; erdi-hegalean herrixkak zituzten mendebaldeko lurak, Berbizko eta Zaldu artean, Berbizko, Zubero eta Zelaitu mendien oinean; eta, amaitzeko ia hutsik zeuden mendebaldeko mendilerroak, bertan Urdanegi eta Lanzagorta bakarrik ausartu zirelarik Ayegako haranean aurrera egiten.

San Juan de Mollinedo parrokia jaitzi zenean, haranaren gune nagusi bihurtu zen. Gainera, Isasiko Santutegia eta Zubietako dorretxeak eta auzoak zituen, ekialdean, eta Ibargun eta Ibarra, mendebaldean.

Allendeko dorrera arteko haizpitarteek mendebaldeko haran osoa isolatu zuten, Izaragorrian eta Artekonan, eta, aldi berean, Zalduko Haranak bizitza propioa hartu zuen, hiriburuari eta herriguneari esker, haranaren hegoaldean.

Dorretxeak jauregi bihurtu ziren, eta dorretxeak, zubiak, errotak edo burdinolak eta baselizak osatutako zibilizazio-unitate hura alde batera uzten joan ziren. Komentuak Mollinedoko herrigunea osatu zuen. Gero, bide berriari ezker ibarretik jarraitzen zuten etxe neoklasikoak gehitu zitzaizkion, eta, haien ondoren, indianoen etxeak.

Etxebizitza kolektiboek eta familia bakarreko etxebizitzek eragindako hiri-hedapenaren ondorioz, ibarraren paisaia aldatzen doa. Gauza bera gertatzen da industrialdearekin, eta Kadagatik gure haranera doan autobiarekin, Mendoza mendia inguratuz. Tentsio altuko lineak ere aldaketa berriak eragin zituzten haranean, eta pinu-basoberritzeak hegaletako herrixkak inguratuz doaz pixkanaka.

1.3.3 Sopusuerta

Sopuertako udal-barrutia iparraldetik hegoaldera doa, Kolutza eta Mercadillo Haranetatik Otxaran Haranera. Urrestietako banalerroa mendean hartzen du, baita beste banalerro bat ere, eta Kadaguaraino iristen da. Zallak, baina, ez zion urrunago joateko aukerarik eman. Muga enigmatiko horrek bi guneen arteko etsaitasunak agerian uzten ditu. Pentsa daiteke Zalla eta Balmaseda behinola Sopusuertarenak izan zirela, eta geroko banaketek Sopusuerta Kadagatik kanpo utzi zutela.

Mendebalderantz, mendi-muga logiko batek Artzentalestik bereizten gaitu, Artzentalesen parte handi bat Sopusuertatik jaisten zen Kolutzako Arroarena bada ere. Horrela, ezkutuko goi-arroa da Artzentales, Kolutzako haizpitarteek bakarrik agerian uzten dutena.

Mercadillo-Barbadun ibaiak eta Mercadillo ibaiadarren banalerro txikiek markatzen dute ekialdeko muga bereziki.

Iparraldeko muga mendi-muga indartsua da, eta uren banalerroa. Ikus dezakegunez, Sopusuertak, iparraldeko eta mendebaldeko mendien eta hegoaldeko mendi leunagoen babesean, Mercadillo ibaira so egiten zuen, eta Galdames haren ekialdeko isla ikusgarria zen. Sopusuertak eta Galdamesek arro handia erdibanatu zuten: muga logikoa trazatu zuten banalerro eta ibai batetik, eta bide zaharra jarraitzen zuen bigarren banalerro batetik, gero Donejakueren bidea bihurtuko zena, Loitzagatik joanda. Arro handi hau Barbadun haizpitarteen atzean ezkututzen da, Somorrostron, eta bide ematen die hegoaldera doazen haizpitarteei, Carral ostean. Gero, Urrestietarantz jaisten da, eta mendebaldekoetarantz, Oلابarrieta eta Bezi herrietatik, Artzentales aldera.

Lurraldean, pixkanakako okupazioa suma dezakegu, Paleolitikotik Brontze Garaira artekoa, bazken goi-zonetan: herrixkak, tumuluak, iparraldeko eta ekialdeko trikuharriak, Betaion, Alenen eta Tres Piquillosen. Haien atzetik, harana eta bideak behe-kotetan kontrolatzen zituzten Burdin Aroko gotorleku handiak.

Horrek guztiak erakusten digu Longitas tontorrean gotorleku handi bat egon zela (Villar), Alen gotorlekuaren oinordeko, eta mendebaldera zoazen bi bideak kontrolatzen zituen, Kolutzatik eta Baldebeztatik, eta baita ere banalerrorantz zioan hegoaldeko bidea. Presentzia horren proba dira oraindik ere oinean dauden Mercadillo, Carral eta Bezi.

Agian beste gotorleku batzuk egon ziren Latraben, Baluga gainean.

Susmagarria da Sopusuertako toponimoa agertu izana Alen eta Bezi azpian, *Sopusuerta* = *Subporta* = *mendate azpia* pasabide edo mendate historikoa mendebaldekoa izango bailitzan, eta ez Urrestietara zihoan bidearena, edo Muñecasekoa, uste bezala.

Gotorleku indoeuoparren eskemak beste gotorleku handi bat zuen Galdamesen (Peña del Moro haitza), gurearekin simetria ezin hobean, eta arroaren bi aldeetara banatuta. Erromatarrek

aldatuko zuten, ordea, Fraviobriga (Castro Urdiales) herrira iritsi nahian bide arraro bat trazatu zutenean, gunee altuak zeharkatuta: Urrestieta eta Muñecas.

Bide arraro horrek ez die arrazoi geografikoei erantzuten, eta Barbadun ibaitik itsasoraino jarrai zezakeen; baina padurak besterik izango ez zituenez, eta mendatea ezartzea ezinezkoa zenez, igotzea eta banalerroak jaitea erabaki zuen. Dena den, badago Alen, Otañes eta Granja gotorlekuei inguratze-lubakien izaera militarra ematen dionik.

Bide hark dinamika indoeuroparra aldatuko du iparraldeko-hegoaldeko ardatza eratzerakoan, mendebaldeko bideak eta ibaiaren hegoaldeko irteera ahaztuta, itsasora doana. Dena den, Castro Urdiales-itsasoa dikotomia hauteman daitezke Balugan, Santa Anan eta El Cruceon, "Y" grekoaren gurutzea eratuz.

Erromatarren presentzia ahaztuta, gotorleku handien joera herrigune txikiak sortzea izan zen, oinean: Bezi, Santa Galde, Altzedo, San Martin, Peñecos, eta abar.

Erromatarren Inperioa erori eta gero, Erdi Aroko lehenengo mendeetan herrigune zahar horiek berreskuratu zituzten, eta berriak sortu, basoberritze izaera argiko haien toponimoek —Santa Gadea eta San Martin— adieraz dezaketen bezala.

Hala ere, ermiten eta parrokien toponimo erlijiosoek martin zaharragoak adierazten dizkigute, eta oso kristautze primitiboa: Santa Luzia, Gerelaguan; San Kosme, Peñecosen; San Kosme eta San Damian, Bezin; San Roman Cañedon; San Vicente, Altzedon; San Pedro, Balugan, eta San Bartolome, Urrutian.

Kasu askotan, Goi Erdi Aroan bizirautea lortu duten behe-inperioko aristokraziaren oinordekoak dira dorretxeak; hona hemen adibideetako batzuk: Altzedoko Harana eta bidea, dorrea eta jauregiak kontrolatzen dituzten iparraldeko lautadako dorreak eta jauregiak; Kolitzako jauregiak; Arroyos dorrea, La Puente, Carral; jauregi turtziarra, Peñecosen; Loitzaga jauregia; eta Urrutia dorrea haizpitardean; eta, amaitzeko, Urrestietako dorrea, banalerroan, eta Zalla-Otxaran mugan.

Ikus dezakegunez, zibilizazio ezberdinak nahastuz doaz bideak: ibiltariak tontorretatik doaz historiaurrean, Burdin Aroko estatu-hiriak, erromatarren bideen eskema eta haien herrixka txikiak, hegaletara berriro igotzen diren Erdi Aroko herrixkak, eta haranera eta bideetara jaisten diren Aro Modernoko herrixkak.

Gainera, mendebaldeko bide zaharretan ikus dezakegunez, iparraldekoa Kolitzatik Traslaviñara doa, Artzentaleseraino, eta bestea, aldiz, Bezira iristen da, bideak norabide guztietara banatzen dituen toki lasai horretara, alegia. Itxura denez, Bezi eta Urrestieta lehian aritu ziren, eta erromatarrek azken hori mendateko pasagune moduan finkatu zuten, iparralde-hegoalde norabidean, Bezi bide zaharragoen bidegurutzera baitzen.

Loitzagako ekialdeko bidea —zaharrena, dudarik gabe— Baluga-Santa Ana bidegurutzera iristen zen. Bide hori indarra galdu zuen, eta Azebaltik eta Ameztik haraino zihozaren bide zaharrek ez dute konexio modernorik eragin. Horrenbestez, gotorlekuen muga zakarra lur ahaztu eta isil bilakatu da.

Halaber, ezin dugu aipatu gabe utzi erdi-hegala kontrolatzen zuen bide zaharra. Artzentalestik Bezira iristen zen, eta, hortik, Urrestietara, San Kristobal eta Magdalena aldera abiatzeko, gaur egun jada desagertuta dauden bideetatik. Haranetara jaisten ez zen Goi Ingurabide baten modukoa dirudi.

Aro Modernoan, gertaera hauek jazo ziren: Orduñako pasabidearen eraikuntza, Bilbo eta Santander hirien hazkundea, Castro Urdialesen eta Balmasedaren indar-galtzea, eta trafiko handiak beste galtzada eta haran batzuetara lekualdatzea.

Meatzaritari eta lehenengo industrializazioari esker lortu zuen Sopuertak Alen eta Muñecas hegal-zaharren jarduera berreskuratzea, Galdamesen, Somorrostron eta Castro Urdialesen, eta baita Artzentalesen iparraldean gertatu zen bezala.

Industria-zibilizazio iragankor horrek aztarnak utzi zituen paisaian: meatze zaharrak; Traslaviña-Castro Urdiales trenbidearen trazadurak; Sopuertako trenbidea; Torresaletako aire-trenbidea, Alenen; geralekuak; meatze-etxeak; labeak eta tunelak.

Aipatu behar da Bezi-Urrestieta bide zahar horren paraleloan Santanderrera zihon trenbidea trazatu zela, erdi-hegalean. Horrek erakusten digu Otxarango eta Artzentalesko Harana zela korridore posible bakarra Ordunte mendilerroaren eta itsasoraino iristen ziren mendiguneen artean.

1.3.4 Galdames

Galdamesko udalerrria geografiak ondo definitutako herrialde txikia bat da, paisaia-aberastasun handikoa. Muga estrategikoak ditu: iparraldean, Kurutzagara eta Aldapera (Eretzaren oinean) iristen diren Garenan eta Gastaran kareharrizko mendilerroak, Trianoko burdinazko zain-aberatsen gordeleku. Hegoaldean, Kadaguaren banalerroa erakusten duen Larrea, Zipar eta Artegi mendilerro liraina, ekialdean Arnabizkar mendatea —sarbide zaharra— utziz. Mendebaldean, muga egiten du Sopuertarekin, eta Artegiko tontorrak jarraitzen ditu, Artzerantz jaitsiz; hala, Mercadillo ibaia muga izatera pasatzen da, Sopuertako eta Galdamesko arro handiaren simetria-ardatz bihurtuz.

Iparraldean, Galdamesek Barbadun ibaia kontrolatzen du, eta itsasorantz doazen haizpitarteak, Mellora jaitsiz, eta, hala, Montellano lekututako hegalek kontrolatuz.

Lurraldearen bete-betea, Galdames ibaia dago, eta Limon erreka, erdian Peña del Moro haitza utziz, Galdamesen sorburua, ezberrik gabe.

Paleolitikoan, Arenaza kobaren okupazio garrantzitsuen atzetik, Neolitikoan eta Brontze Garaian, Peña Pastores, Ganeran, Gasteran eta Aldaoe okupazioak etorri ziren, alturako bazkekin, tumuluekin eta brontze garaiko herrixka txikiekin; haiek guztiek paisaia oroitazlea ekartzen digute gogora, oso zaharra, Eretzaraino iristen, eta, ezberrik gabe, gure lurraldeko altxor baliotsuenetako bat dena.

Brontze Garaiko Zibilizazio horren atzetik herri indoeuroparrak agertu ziren, estatu-hiriek, eta hiriburu handi bat sortu zuten Peña del Moro haitzean, Cerca, Alto Garai, bestalde, gotorleku txikiak eraiki zituzten Cerco babesteko eta zaintzeko, itsasoko haizpitartearen gainetan.

Hiriburu zentral hori ia simetrikoa da Sopuertako beste batekin, El Villar hiriarekin, alegia; horrek emango dio jatorria Galdamesko lurraldeari, eta haren oinean hazi ziren herrigune txikiei, hala nola San Esteban, San Pedro eta Garai herrixkei.

Erromak herri aurre-hispaniarrei gotorlekuak uzteko eta oinean zeuden lantegi-hiriak hazteko agindua eman zien; agian horren adibide dira San Pedro edo San Esteban. Antza denez, horren adierazle dira San Pedro eta San Esteban kristau-toponimo zaharrak.

Erromak bide bat zuen itsasorantz, Somorrostrora, Muñecas gainez aparte. Baina, halaber, uste dugu beste bide bat izan beharko zela Donejakueren bide zaharra jarraitu zuena, Cercotik eta El Cruceotik Loitzagaren haranera jaisten zena, alegia, Larrea mendilerroaren oinean, Kadaguaraino jaitsiz, Umarandik, Gueñes eta Sopude aldera; bide garrantzitsu hark ziurrenik ez zuen bakarrik Kadagua bilatzen, baita Herrerias eta Zaldu ere, goi-tontoretatik Arabako lurretara joateko, Kadaguako haizpitarteak igaro beharri gabe. Bide zahar hura izan zen Erromak Sopuertaren eta Galdamesen arteko muga egiteko erabili zuena, inorena ez den lurra sortuz, oraindik ere antzeman daitekeenez bide horren eta Urrestietako Bidearen artean; Cinto eta Artegi tontorrak, bestalde, bi hiri-estaturen lurraldeen arteko muga izango ziratekeen.

Erromatar nobleziaren herrixkek eta kokalekuek eragin zituzten etorkizuneko familiak, dorreak eta jauregiak; Loitzaga, Larrea, Txabarri, Ibarruri, Laia, Llano, Torre, Peñoñori, eta Montellano dorreek erromatarren kokalekuak erakusten dizkigute, horietako asko goi-kotetan, Peña del Moro-Cerca gotorleku zaharraren inguruan. Villak ere erromatarren kokapen zahar bat eman diezaguke aditzera, San Estebanen eta San Pedoren antzera, antzinako kristautzearekin.

Horrek guztiak erakusten digunez, Galdamesko Haranak garrantzia handiagoa hartu zuen San Esteban eta San Pedro herriguneei esker, baina agian Loitzaga-Larrea izan zen ardatz nagusia, hasiera batean.

Peñoñorik bi ardatzen lotura begiztatzen zuen iparraldean, eta, hegoaldean, berriz, Garai, Ibarra eta Txabarri lotzen zituen.

Bi ardatz horiek oso paisaia baliotsuak eta ezberdinak definituko dituzte, bata aktiboa eta industrialia, eta bestea, aldiz, ezkutatuago, nekazaritza- abeltzaintza eta jauntxo izaerakoa.

Goi Erdi Aroan, erromatarren herrixkek bide eman zieten lurraldea osatuko zuten herrixka txikiei; haietako batzuk garrantzia handiagoa hartu zuten, hala nola San Esteban eta San Pedro herrixkek, eta, kuriosoko, baita hain isolatuta dagoen Montellano herriak ere, itsasora zihoazen haizpitarteak kontrolatuz.

Uste dugu erromatarren Loitzaga-Larrea bide zaharra Donejakueren bide zahar bat izan zela; baliteke bide hark Frantziako eta kostako bideak batu izana, horren lekuko dira, ezbairik gabe, Santiagoko baseliza eta Gueñesera iristean bide hau hartzen duen Santa Marina baseliza.

Bideak, Kadaguara jaitsi aurretik, Galdames ibaia jarraitzen zuen beste bide batekin egiten zuen bat, eta, zalantzarik gabe, Uribai, Illeta, San Cosme baseliza igarotzen zituen, Lejartzaren eta Magdalena baselizara igoz, Jordira eta Sodupera iristeraino, Herrerias edo Zaldu ibaietatik Araba aldera jarraitzeko.

Erdi aroko nekazaritza eta abeltzaintza herrixka hauei —beren dorretxeekin, nobleen etxeekin eta bideekin— erroten eta burdinolen industrializazio primitiboa gehitu behar zaie.

Errotak nagusi dira Galdamesen; Uribai, Los Molinos, La Acuña, Arenaza; baina, batez ere Barbadunen: Valle, Valdibian, Olla, Pobal errotak eta Valdibian, Olla eta Pobal burdinolak. Horrela, paisaia berria agertzen da, batik bat Barbadun ibaiaren haizpitarteetan, eta balio handia duen paisaia natural eta historikoa sortzen da: errota-burdinolak, eskuinaldeko galtzada zaharra, zubiak eta presak.

Industria-iraultzak paisaia berria agerraraziko du, ezustean: meatze-gune guztia, bi trenbideak —Galdamestik Sopuertara doana eta Galdamestik Somorrostrora eta Sestaora doana—, aireko trenbideak, meatze-instalazioak, garbitokia, meatze-herrixkak, etab. Harritzekoa bada ere, horrenbeste markatu zuen ezusteko paisaia hau aisialdirako parke natural bihurtzen doa —urmaelekin, trenbide zaharreko ibilbideekin, eta abar— mantentzea posible liratekeen baino oroitzapen gutxiago mantendu baditu ere.

XX-XXI. mendeko paisaia berri honen faktore eragileak izan daitezke honako hauek: pinudiak agertzea, nekazaritza abandonatzea, abeltzaintzak gainbehera egitea, hiria larreetara eta haranetara hedatzea; askotan lotarako hiri bihurtu diren herriguneez izaera hori galtzea.

1.3.5 Turtzioz

Turtziozko lurraldeak zubi lanak betetzen ditu Karrantzako haran handiaren eta Artzentalesko goi-lurren artean; zubi bezala jaiotzen da, hortaz, haren haranaren jatorria eta jarraipena nolabait Kantabriari dagozkio eta. Baina ahultasun hark sistema naturalekin jarraitzeko abantailak ematen dizkio; izan ere, Karrantzatik —parke naturalarekin— Turtziozen sartzen dira, eta Artzentaleseraino eta Sopuertaraino jarrai dezakete, Aguera ibaia saltatuz. Kareharrizko sistema horien jarraipena da, hain zuzen, Turtzioz funtsezko mugarri bihur dezaketen erronka garrantzitsuenetako bat.

Haren lurraldea oso luzea da ekialdetik mendebaldera, eta iparraldera eta ekialdera isurtzen duten kareharrizko eremu natural handiak biltzen ditu, Armañongo parke naturala eratuz; ekialdean, Campo Ventosotik jaitsiz mendilerroek Betayoraino jarraitzen dute, Artzentalesen, hegoaldeko Peñalba errekararekin bereiziz; haraneko estugune txiki batek Kantabrietik bereizten gaitu hegoaldean, eta mugak muinoen goiko aldeetatik jarraitzen du, Zarrondegiraino iritsi arte, Karrantzan. Bitxia bada ere, Aguerako Haranaren parte handi bat Artzentalesko parte da, haren sorburutik, ekialdeko isurietan. Artzentalesko lurraldearen erdia Agueraraino jaisten da kasik, eta horrek hegoaldera jarraipen naturala egiteko aukera ematen dio, Artzentalesko hegal leunetatik.

Lurralde-okupazioak historiaurrean jada bazka-areak eta ehorzketa-tumuluak daude dizkigu ekialdetik mendebaldera —Betaio, Ventoso eta Armañon—, eta uste dugu geroko gotorleku txikiak goi-hegaletan kokatu zirela, haran-hondoa zaintzeko. Gotorleku haiek —Hilar eta El Cerro— Gordon herrixkak sortu zituzten, ekialdean, eta Cueto, mendebaldean; bai batek eta bai besteak harana kontrolatzen zuten, eta bietan baselizak eta zezen-plazak zeuden, Kantabriako eta Bizkaiko

lurraldeetan agertzen diren erromatarren aurreko gurtza zaharren lekuko, Asonetik Barbadun arte, autrigoi tribuarekin bat etorri izurialde kantauriarrean.

Herrigune horietatik abiatuta hasi zuen Erromak ziurrenik bideen trazadura Guriezoraino, eta beste herrigune batzuk eratuz joan zen beherago: Romaña, Puente, Pando, Basinagre. Erromatarren herrixka horien oinordekoak dira dorretxeak, haraneko aristokraziaren jatorria: Romañako, Puente, Igesiako, Pandoko eta Basinagreko jauregiak eta dorretxeak.

El Puente, Santiago, La Estrada toponimoek itsasotik mendebaldera igotzen zen bide zaharra erakusten digute, Karrantzaren eta Presara eta Calerara zihoan erromatarren bidearen bila, ezbairik gabe, Ason-Calera haranean dagoeneko, Tornos eta Meseta norabidean.

Bi herrigune mota horien artean, oraindik ere herri txikiak ikus ditzakegu: Recueto, Los Tueros, Cerro, Estrada, Muganes, Laredo eta Dueras, eta San Roke santutegi zaharra, gotorleku zahar baten adierazle, ziurrenik, Gordonen edo Cueton bezala. Harritzekoa da ordea santutegia Santa Cruz goi-lautadaren oinean egotea, Artzentalesen, haranaren okupazioaren eragileetako bat izango bailitzan.

Haren eboluzioa beste haran batzuek —Karrantza, Saltzedo eta Sopuerta kasu— izandakoarekin bat dator. Haran-hondoan garatzen da, bide eta zubi osoan, eta, hala, herrigunea hazten doa, elementu ezberdinekin: jauregiak, dorretxe zaharrak, eliza handia eta zezen-plaza, zubiak, plazako gune txikia, eta abar.

Agian, herrigune lineal horren gehiegizko garapenak nagusitasuna kendu die Gordon, Cueto goi-nukleoei, eta pixkanaka-pixkanaka nukleo handiagoa eraten joan da, eta barne hartu ditu Romaña, Mugane eta Pando, baita Calera eta Laredo ere. Horrenbestez, multzo handi horrentzako espazio publiko handiagoa behar da.

Garapen industrial berria topografia oso konplexuan dago, eta bertako mozketek, indusketek, eta betegarriek, beste batzuen artean, eraso egin diete haranari. Gainera, lurzoruaen parte handi bat galdu dute beren sarbideetan, eta, oraingoz, industria bakarra babesten dute.

Azken finean, Turtzioz txikia bada ere, aukera natural izugarriak ditu; gainera, abeltzaintzari lotutako tarteko guneak ditu, eta monumentu kaskoa, modu linealean —eta, zertxobait anarkikoan— garatuz gero mantentzeko, haren mugak berriro definituz, naturari bide emateko eta herrigunea lasaitzeko duen zentroa eratzeko, zentzu bateratuago batekin.

1.3.6 Karrantza

Karrantzako egitura erresuma edo herrialde txiki batena da; bat dator Karrantzako ibai-arroarekin eta mendiz inguratuta dago.

Hegoaldean, Ordunteko mendi altuak ditugu, Zalamatik (1336 m) Burgeñoraino (1043 m) Burgostik bereizten gaituen mendikate handia eratuz, eta, ekialdean ia Koltizan amaituz (879 m), beherantz egiteko gero, Eretzarekin talka egin arte, kasik, itsasoan.

Mendikate handi honek bere pagondoak, hariztiak eta artadiak mantentzen ditu, eta Karrantza inguratzen du, hegoalde, eta ia baita ere ekialde eta mendebalde; izan ere, ekialdeko mendi-adarrek muga egiten dute Turtzioz herriarekin Aguera ibaiaren banalerroan, eta Escrita mendatea igaro eta gero gora egiten dute berriro Armañon aldera (854), itsasotik bereizten gaituen Guriezo kareharrizko mendigune handiaren parte izanik.

Era berean, mendebaldean, Zalamako mendi-adarretatik muga egiten du Calera-Ason banalerroarekin, Peña del Moro (829 m) eta Ranero haitzetara (729 m) iritsi arte, kareharrizko mendigune handia eratuz. Bertan, Ranero Haitzetan, ibaiak haizpitarte berria ireki zuen, Ason aldera iriteteko, Laredoko eta Santoñako padurak eratu zituen ibai-ahora, alegia.

Ekialdeko eta mendebaldeko mugetan Brontze Garaiko tumulu-aztarnak ageri dira, batez ere mendebaldean, Bernaltau ingurunean, eta bertan, historiaurretik paisaia deforestatua izan da, bazketarako erabili izanagatik.

Aldi berean, iparraldeko kobazuloek bizitoki- eta ehorzketa- arrastoak erakusten dizkigute, paleolitikotik neolitikoraino.

Horrek guztiak erakusten digu eremu ezin hobeia izan zela (eta dela) bizitzeko, baina haren egoera topografikoaren ondorioz ez dela komunikazio eta bide garrantzitsuetarako toki aproposa. Era berean, antzeman daiteke erromatar bide batek Calera ibaia ekialdetik mendebaldera zeharkatzen zuela, Pradotik, eta Presa gunera igo gero.

Ezbairik gabe, denborak aurrera egin ahala herrixka indoeuroparrak agertuko dira, Castro del Zorro, Burgueño, Peña del Moro eta toponimia, Bernalta, Bernales, Arganda; sortzaile indoeuroparrei egiten diete erreferentzia eta muinoetako baseliza bitxiak ere herrixka txikiak eman diezazkigukete aditzera: San Isidoro, Sobrepeñan; Bandera, Cerca, San Pantaleon, Bernalesen, Campallano behean; Arimen muinoa, Bustillon; Castrios, Aldeacuevan; Muro, Presan; Cueto, Bollainen eta Cotarzo, Paulesen. Hori ikusita, badirudi okupazio handia egon zela, baselizek seinalatutako gotorleku txikiekin, behar bezala egituratuta haran guztia hartzen zuten Erdi Aroko guneei bide emateko, goi-kotetatik zirkulu zentrokideetan jaitsiz, hondoraino.

Dorretxeek Erdi Aroan lurrak eta pribilegioak mantendu zituzten behe-inperioko aristokraziaren familiak ematen dizkigute aditzera. Ikus dezakegunez, 28 dorretxe zeuden 40 herrixka baino gehiagotan, eta haietatik zazpi geratzen dira, beste batzuk jauregi bihurtu baitira; beraz, 18 jauregi eta 7 dorretxe batuta, 25 izango genituzke, jatorrizko 28 dorretxeetatik gertu.

Harritzekoa bada ere, dorretxeak eta jauregiak iparraldean eta erdialdean biltzen dira — Ranero, Santecilla, Llanas, Herboso, Bollain, Matienzo, Biañez, Manzanedo, Callejo, Ahedo, Zalama, San Esteban eta Lombanos—, ez ordea hegoaldean. Horrek ziurrenik dentsitate eta okupazio handiagoko zirkulu-gunea erakusten digu, eta abeltzaintzarako gune oihantsuagoa, berriz, hegoaldean.

Baselizen toponimoek antzinako kristautzea ematen digute aditzera: San Sebastian, San Pedro, San Esteban, San Andres, eta Islametik ihesian etorritako beste batzuk, hala nola San Isidoro eta San Pantaleon.

Ahedoko San Migelek gotorleku tenplarioa erakuts diezaguke, Artzentalesen bezala, kostan ezkutuan dagoen ekialdeko-mendebaldeko bidea seinalatu, beharbada.

Harrigarria da herrixkek izaera eta dentsitate argia izatea: 60 herrixka inguru egon ziren, gaur egun 40 geratzen badira ere. 26 eliza zeuden, eta horrek haranaren aberastasuna eta bizitasuna erakusten dizkigu, baita gaur egun ondarea mantentzeko eta galdutakoa berreskuratzeko beharra ere.

Karrantzako Erdi Aroko eta Errenazimenduko harmonia sakoneko paisaia imajina dezakegu, tontorretan eta larreetan basoak dituela, belazeak eta laborantzak; baita herrixketako arkitektura herrikoiak ere, dorretxeekin eta eliza txikiekin, oraindik ere birjina den ibaiarekin, bere errotekin eta burdinolekin, presekin eta ubideekin.

Artzentalesek bakarrik zuen antzeko eskema, baina ez zuen herrixketarako horrenbesteko joerarik. Enkarterrietako gainontzeko gunean, basoek eta hegal handiek haranak desorekatu zituzten, eta bideen nagusitasunak eta behe-ibarrek erdi-hegaleko herrixkak ahuldu zituzten; ez zuten, hortaz, inoiz indarrak berreskuratu, ezta eliza propiorik ere.

Esan behar da hemen, Karrantzan, baselizaren eta zezen-plazaren tipologia eman zela baita ere, hiru ereduekin; hala, Turtziozen eta Sopuertan ematen den tipologia berarekin jarraitzen da, Santanderko haranetan jarraituz, gurtza zaharretan oinarritzen dena, ezbairik gabe.

Apartekoa da baita ere santandertar arkitektura balkoi korrituko ilara etxeetan, etxe turtziarra, teilatu piramidaleko etxe gaztelaua, eta, amaitzeko, baserri-tipologia. Goi-larreetako eskorta-mota ere ikus daiteke, beste haranetan apenas ikusi arren haran honen hegoaldean ugaria dena.

Aro modernoan, haran-hondoko guneak nagusitu ziren —Concha eta Ambasaguas—, eta larreak okupatu zituzten; etengabeko hiri-orbana osatzeko arriskua dago hortaz, haranaren gardentasuna hautsiz. Bi gune horien hazkunde neurrigabeak hondora inoiz jaitsiko ez ziren haraneko

gune historikoak urritu zituen —San Esteban, Ahedo, Zalama, Białñez— eta errepidean zehar zeuden errebaiek gausitasuna kendu zieten.

Aldi berean, guneetarako aurreikusitako hazkundeak ingurune osoa aldatuko luke, izan ere, larreak okupatu, guneak etengabeko orbanetan elkartu, eta landa eta paisaia urbanizatuko luke, guneen dentsitatea murriztuz eta haren esentzia aldatuz.

1.3.7 Lanestosa

Lanestosako mugek argi eta garbi erakusten digute herribildu gisa sortu zela Burgostik Santanderrera eta Laredora doan bidean, eta haren lurraldea Calera ibairaino iristen zen Karrantzako Haranaren barruti handitik banandu zen. Bitxia bada ere, Calera ibaia probintziako muga bada ere, Lanestosako muga mendebaldera igarotzen da, hegalean oinean, Lanestosari ibar osoa emanaz.

Egia da Lanestosa inguratzen duten hegalek Calerara isurtzen dituztela urak, baina haren bazkak, laborantzak eta guneak Karrantzarenak direla, Caleraraino hurbildu eta muga bertan jarri zuen Karrantzarenak, hain zuzen.

Badirudi Lanestosako barruti txikiak bat egiten duela Calera ibaiak harana haizpitartetik haizpitartera zabaltzea lortu zuen gunearekin. Puntu horretan bertan, Pernal errekek ekialdeko hegalek leundu zituen, eta, horregatik, posible izan ziren Karrantzarako bideak.

Oso lurralde ederra da, ia birjina, ibarbideko larreekin eta goi-larreekin, hegoaldean harresituta, haren oinean hiria sortuko zuen gotorleku baten gisara.

Ibaiaren inflexioan dago, eta ekialdeko aldea okupatu beharrean mendebaldekoa okupatuko balu, larre-guneak egongo liriteke, eta baita terraza txiki bat ere, mendebaldean, herrixka dagoen tokian.

Ondo zaindutako herrixka monumentala da; bertan, Erdi Aroko partzelazioaren orde ez etxe klasiko handiak agertu ziren, beren lorategi harresituekin, eta baserri zahar bat bakarrik dagokio haren trazadurari; eliza, plazak eta bi zubiek hirigunea aberasten dute ibaiaren bidegurutzean, oinaren azpiko hilerri zaharrera zeraman ardatz barrokoarekin, gaur egun hiriak inbadituta dagoena.

Hasiera bateko herrixka saiatu zen ibaioko larreak ez okupatzen, eta beste aldera zabaldu zen; bertan, eskolak, indianoen etxeak eta errepidea eraiki zituzten, eta, horrela, hiri-eremuen errenkadak etorriko ziren. Lanestosa modernoa hiri lineal independenteagoa eta anarkikoagoa da, Erdi Aroko fundazio neurridunaren aurrean.

Gaur, urbanismo eta arkitektura berriak ez dituzte trazadurak eta tipologia errespetatzen; plangintzak iparraldeko larre guztiak multzo kolektiboekin okupatzea aurreikusten du, eta alubioi-alubioi-guneak okupatzea. Bestalde, araztegi berria larreetako toki ikusgarrienean dago, eta etorkizuneko auzoen eta ibaiaren arteko harremana oztokatzen du.

Saihesbidearen trazadurak, bestalde, aurreikusitako trazaduran mendebaldeko topografia aldatuko du, herrixka basoetatik eta hegaletatik isolatuko du, hilerria —harresitutako larre zaharra— suntsituko du, eta, ziurrenik, baita ingurunearen zati handi bat ere. Espero dugu herrixkako elementu natural eta kulturak guztiak errespetatzea eta hegaletan mozketarik ez egitea; badirudi larreetatik kalterik egin gabe pasatzeko aukera badagoela, baina, horretarako, beharrezkoa da mutur hauek guztiak zainduko dituen diseinua egitea.

1.3.8 Artzentaies

Artzentaiesko lurraldea Aguera eta Koltiza banalerroan dago, eta, beraz, mendebaldeko eta ekialdeko Enkarterriak batzen ditu; badirudi hori izan dela bere xedea, ekialdeko-mendebaldeko bideak zaintzeko eta kontrolatzeko gaina izatea.

Haren udal barrutia erronboide-formakoa da, eta Betaio eta Alen mendiekin Kantabriarekin muga egiten duen kareharrizko mendikate handia kontrolatzen du. Ekialdean eta mendebaldean, Koltzaren Haranetatik jaisten hasten da, Sopusertara bidean, eta Agueraren ibaiadar txikietatik Villaverde eta Turtzioz aldera.



Paisaiaren Katalogoa Catálogo de Paisaje

Balmaseda - Zalla

Hegoaldean, Castillejos herritik Ordunteko mendi-adarretara iristen da, la Garbeatik gertu, Koltizaraino eta Burgeñoraino iritsi arte; hala, iparraldeko hegal guztiak eta Agueraren sorburuko ekialdeko hegal guztiak kontrolatzen ditu.

Historiaurretik, gizakiak lurraldea okupatu zuen, eta haren lekukotasunak banalerro osoan ageri dira, Castro Alenetik Betaioraino, zenbait aztarnategi tubularrekin, baina baita hegoaldean ere, Koltizaren eta Burgeñoren oinean.

Toponimiak populatze indoeuroparra adierazten digu: Saldecastro, Castillejos, Castro Alen; eta, alturako bazken ostean, oreka mediterraneoko lurralde okupazioa dator: zereal-nekazaritza, mahastiak, bazkak eta basoak.

Ezbairik gabe, Erroma presente dago trilogia horretan eta multzokatutako gunek txikiak sorreran, non erromatarren herrixkek dorretxeak sorrarazi zituzten, eta jauregiak, gero; bilakaera horrek lekuko dira honako dorretxe eta jauregi hauek: Llanos, Santa Cruz, Quintana, Rebollar, Taslosheros, Santelices, Traslaviña, El Arco eta Horcalistas.

Kristau-toponimiak ere kristautze horren antzinatasuna erakusten digu: Santa Cruz, Santa Maria, Las Nieves.

Sopuertatik eta Otxarandik ekialdeko-mendebaldeko bidea zetorren, eta Traslaviñak gure lautadaren ekialdeko sarrera kontrolatzen zuen.

Tradizioak dio San Migelen gotorleku tenplario bat egon zela; haren kokapenak, izenak eta bideak hipotesi hori babestuko lukete, zalantzarik gabe. San Migueleko zuhaitz zaharrean Artzentalesko biztanleak bildu izanak Artzentalesen hiriburu sinbolikoaren hipotesia babesten du; tenplarioek geroago jarriko zuten han beren etxe-eliza-gotorlekua.

Artzentalesko industria-iraultza iparraldeko eta Alenen hegoaldeko meatze-ustiapenekin hasi zen, eta horri guztiari Santanderreko trenbidearen trazadura batu zitzaion.

Bi etenaldi horiekin —desagertua bata, eta oso murriztua, bestea—, Artzentalesek nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basogintzarako lurraldea izaten jarraitu zuen.

XX. mendean, abeltzaintza areagotu zen, eta nekazaritza desagertu; basogintza agertu zen baita ere, basoberritzeei esker. Azken horiek iparraldeko eta hegoaldeko baso eta larre zaharrak hartu dituzte, eta erdiguneko larreen eta zuhaitzien paisaia murriztu dute. Santa Cruz eta Gorgolas dira iparraldeko eta hegoaldeko luzakinak, eta bertan, larreak eta alturako bazkak mantentzen dira, nahiz eta pinudiz inguratuta egon, geroz eta gehiago.

Eraikuntza berriak ere Artzentalesko hiri-paisaia aldatzen doaz. Espero dezagun haren arkitektura herrikoia eta ondarearen babesak eta errespetuzko hirigintza eta arkitektura baten exijentziak paisaia berdingabe hau zaintzea.

1.4 Gaur egungo paisaia

Enkarterrietako eskualdea oso konplexua da. Nahiz eta lurralde txikia izan, bi ibai-haran ditu mendebaldetik ekialdera, 900 metro inguruko tontorren mugan, ibaiek induskatutako iparraldeko-hegoaldeko kate handi bat osatuz. Gero, 600 metroko kotetara jaisten da, eta Ganekogortan 1000 metroko garaiera lortu zuen kareharrizko mendikate handira iristen da. Bertan, bi ibaiek batera aurrera egin behar dute, itsasoratu ahal izateko. Kadagua eta Herrerias ibaiek are konplexuagoa egiten dute paisaia, Otxaran, Rodalega eta Zaldu ibaiadarrekin, eta haran nagusiekin paraleloan eta perpendikularrean doazen haranekin.

Baina mendebaldeko-ekialdeko bi haran horiekin batera, iparraldean muga eginez, lau ibai-arro daude: Sodupe-Galdames kubeta; Aguera haran estua; Karrantzako arro handia, eta, amaitzeko Lanestosako Harana, ia haizpitarte dena. Haran horietako bakoitzak bere pertsonalitatea du, ertz menditsuak eta altitudea direla eta. Haien ibaiek iparraldeko lurraldea mugatu zuen kareharrizko arku handia induskatu behar izan zuten, haizpitarte konplexuak eratuz. Gainera, Ordunteko mendilerro handia dago bertan, oso garaia eta malkartsua, eta haren oinean jaiotzen dira haran hauek eratuko dituzten ibaiek.

Konplexutasun horri gehitu behar zaio Turtzioz eta Koltiza-Barbadun arteko banalerroa Artzentales definitzen duen lautada bat dela. Nortasun handiko lurraldea da, banalero gisa jarduten duena, altitude eta presentzia handiagorekin. Gainera, Koltiza-Barbadun arroak bi ibai hartzen ditu ekialdetik: Galdames eta Limon. Beraz, zeharkako bi haran ditu, haranaren iparraldeko-hegoaldeko ardatzarekin elkarzut.

Eskualde osoan baso-nekazaritza-abeltzaintza trilogia eman zen: pagondoak, hariztiak, artadiak eta gurbiztiak; zereal-nekazaritza eta mahastiak, eta ardi- eta behi-aziendak. Hala eta guztiz ere, burdinolek gurbiztiak eta hariztiak eta artadiak murriztu zituzten, eta haien ordeztatuak agertu ziren, eta, parte batean, iparraldean, batez ere, eukalpto-sailak. Nekazaritza desagertu zen, baita ardi-azienda ere, eta baso-eta abeltzaintza-ustiapeneko ekonomia geratu zen bakarrik; hala ere, iraultza- industrialaren etorrerarekin, meatze-ustiapena gehitu zitzaion, eta baita industria-sektorea ere fabrikekin, Kadaguan bereziki.

Hiru elementu horiek —basogintza, abeltzaintza eta industria— definitu dute gaurko paisaia, lehengoak baino aberastasun txikiagoa duena.

Basogintzak hegoaldeko haranak hartu ditu, eta abeltzaintza- eta nekazaritza-sektorea ia osorik kanporatu ditu, larreak okupatuz eta baserriak eta herrixkak hutsik geratuz, hala nola Gordexolan eta Kadaguan. Horrela, biztanleak haran-hondoan bildu dira.

Paisaia-aberastasunaren galtzea ondo zaindutako pinudi-hedadura izugarriek ordeztatu dezakete, etorkizunean tokiko basoa mantenduko eta garatuko dute eta, mantentze-basoak nagusi diren eremuetan.

Basoaren presio hori Sopuertan-Galdamesen ere nabari daiteke, abeltzaintza-sektorea ia guztiz desagertu baita, haranak ordeztatu bokazio argi bat hartu aurretik. Artzentalesen eta mendebaldeko haranetan, larreek pinudien areagotzea jasan dute, etorkizunean gehiago zabalduko direla iragarrita badago ere. Hala eta guztiz ere, tokiko baso gehiago mantentzen dira, babes zehatzekin dagoeneko mantentzen ari direnak baino.

Abeltzaintzako sektorea esne-ustiapenetan oinarritu zen, haragi-ustiapenetara pasatzeko gero. Gaur egun, berriz, ardi-azienda agertu da berriro ere. Aitzitik, etorkizuna ez batere ziurra. Gordexolako larreak ia guztiz desagertu dira: Kadaguan, hegoaldeko hegoaldean daude; Sopuertan oso ahulduta daude; Galdamesen, Larreako zonan eta banaleroan ageri dira; Artzentalesen eta Turtziozen nagusi dira oraindik ere, eta zuhaitzien ertzek paisaia orekatzen dute. Baina larreek Karrantzan eta Lanestosan dute presentziarik handiena, ustiapen-kontzentrazio handiak direla eta, besteak beste; bertan, larre-paisaia lurraldeko faktore ekonomiko garrantzitsutzat jotzen da oraindik ere.



Paisaiaren Katalogoa Catálogo de Paisaje

Balmaseda - Zalla

Meatze-sektorea desagertu zen jada Sopuertan, Galdamesen eta Artzentalesen, eta, haren tokian, paisaia- arrastoak geratu ziren, gaur egun aisialdi- eta bisita-eremu bihurtuak. Kadaguako industria-sektoreak gune indartsuagoak sorrarazi zituen, baina auzoek eta errebaiek haranaren eta herriguneen itxura narriatu dute. Gaur, gainbehera doan industria-sektore batekin, Bilbo Handiko lo-hiriak dira. Hori dela eta, Kadaguakoa da paisaiarik nahasiena eta aldatuena, oraindik ere abeltzaintzarako erabiltzen den haran-hondoarekin, hiri jarraituak sortzeko gai dela aurreikus daitekeen hiri-hedapenak xurgatzeko zorian badago ere, zatituta eta isolatuta dagoen Kadagua ibaiarekin. Gainera, mesede gutxi egiten diote paisaiari autobiak eta errespetu gutxiko haren loturek, argindar-lineek eta industrialde berriek.

Kadaguaren paisaia galdutako nortasunaren bila doa, oreka berri bat lortzeko xedez, elementu hauen artean: hiri-garapena, ibaia, abeltzaintza eta basoak.

1.5 Paisaiaren adierazpen artistikoa

Atal honen helburua ez da Enkarterrietako artista guztien zerrenda sakon bat egitea, ezta Enkarterrietako paisaiarekin zerikusia duten obra guztien bilduma egitea ere. Helburu bakarra artistek (ezagunek zein ezezagunek) beren obretan irudikatu dituzten ezaugarri garrantzitsuenak biltzea da, Enkarterrietako paisaiaren esentziara hurbiltzeko asmoz.

1.5.1 Lehenengo agerpen artistikoak

Eskualdeko konposizio litologikoaren ezaugarri bereizgarriena kareharrizko urgondar harrien presentzia da; horri esker, zulo-, amildegi-eta kobazulo-formazioak agertu dira, gainontzeko lurralde historikoan baino dentsitate handiagoarekin, eta horrela geratu da islatuta haien okupazioan. Bizkaian, ehun bat kobazulo aurkitu dira historiaurreko aztarnategiekin; horietatik 40 Enkarterrietan daude.

Eta, hain zuzen ere, kobazulo horietan daude lehenengo adierazpen artistikoak, aurkikuntza arkeologiko ezberdinek aditzera eman dutenaren arabera. Bereziki aipagarriak dira Ventalaperra, Rincon, Polvorin (Karrantza) eta Arenaza (Galdames) kobazuloetako irudikapen grafikoak (grabatuak eta pinturak). Diego Garate Maidagan "Los albores del arte en las Encartaciones" obraren egileak dioenaren arabera, Enkarterrietako eskualdean giza jardueraren ebidentziak dauden arren Erdi Paleolitikoan (hau da, duela 40.000 urte, gutxienez), hormetako irudiak ez ziren Erdi Paleolitikoaren eta Goi Paleolitikoaren trantsiziora arte agertuko.

Lehenengo pintura-adierazpen horiek ez diote aipamen zuzenik egiten Enkarterrietako paisaiari, baina bai zonako faunari: hartzak, bisonteak, oreinak, ahuntzak edo sarrioak, uroak, zerbidoak, zaldiak, bobidoak, eta baita antropomorforen bat ere. Beste grafia abstraktu batzuk ere ageri dira, hala nola zeinu angeluzuzenak eta puntu gorrien lerrokadurak.

Neolitikoan jada, kobazuloak alde batera utzi eta lehenengo herrixkak agertu ziren, aire zabalean; hala, adierazpen artistikoa ehorzketetara eta hilobi-monumentuetara lekualdatu zen, lurralde osoko mendietako eraikuntza megalitikoek eta hilobiko aztarnategiek erakusten diguten bezala.



Areatzako kobazuloaren argazkia eta A.I.1 unitate grafikoaren kalkoa (Euskal Kultura Ondarearen Zentroa, 2004; Garate, 2006).

1.5.2 Pintura


Enkarterriak xedetzat izan duten obren gai nagusiak bi dira: erretratua eta arkitektura.

XIX-XX. mendetik aurrera, eszena kostunbristak agertzen hasi ziren, eta paisaiarekin zerikusi zuzenagoa zuen gaia, oraindik ere arkitekturaren oinarritzen bada ere.

Paisaiaren Katalogoa
Catálogo de Paisaje

Balmaseda - Zalla

Kritikari batzuk diotenez, Francisco de Goya pintoreak Jose de Urrutia (Zallan jaioa) jeneralari erretratua egin zionean, atzealde menditsu bat margotu zuen, haren jatorriari alegoria egiteko. Hala, koadroan ikus dezakegun paisaia da Goyak Enkarterriei egotzitakoa.



Francisco de Goyaren *Jose Urrutia jenerala* (1798)

Antzinako beste koadro eta grabatu batzuk erreferentzia egiten diete arkitekturari eta mundu hiritarrari, eta Balmasedari, bereziki. Izan ere, Bizkaiko sarrera zen, Urduñako bidearen ireki zen arte.



San Severino elizako grabatua



Paisaiaren Katalogoa Catálogo de Paisaje

Balmaseda - Zalla



Mari Mar Gonzalezez *Balmaseda ibai-bazterretik* (2011)



Enrique Agustiren *El Puente Viejo de Balmaseda* (2008).

Ohiturekin zerikusi handiagoa duten gaiak era ageri dira, hala nola Urrestietako Batzarretako irudikapena.



Urrestietako zuhaitzaren azpian

2010-11n, Enkarterrietako Museoan erakusketa bat egin zen, museoaren beraren ikerkuntza-lan batean oinarrituta. Ikerkuntzaren helburua eskualdeko horma-pintura osoa dokumentatzea izan

zen, bost mendeko epean (1450etik 1950era). Horma-pinturaren adierazpen artistiko ahaztuenetako bat da. Izan ere, ikerkuntzak ondorioztatzen duenaren arabera, ohikoagoa izan zen Erdi Aroan, Errenazimentuan eta Barrokoan, gaur egun antzeman dezakeguna baino. Pintura mota horrek bereziki erlijio-motiboak erakusten dituen arren, XX. mendera hurbiltzen goazen heinean eszena kostunbristak ere agertzen doaz.



XX. mendeko Hierro-San Martin jauregiko horma-pintura (Sopuerta)

1.5.3 Argazkia

Atal honetan, batez ere paisaiari erreferentzia egiten dioten argazki zaharretan jarriko dugu arreta; izan ere, azken urteotan argazkiak mugarik gabe hedatu dira bitartekoetan.

Argazkiaren artea askoz ere berriagoa bada ere, antzeko zerbait gertatzen da pinturarekin, gaiari dagokionez: erretratuak eta eraikinak dira elementu nagusienak. Hori horrela, elementu fotografiatuenetako batzuk izan ziren Urrestietako batzar-etxea, Balmasedako zubi zaharra, dorretxeak, etab. Edonola ere, eskualdeari lotutako jarduerekin zerikusia duten irudiak ere badira: meatzaritza edo trenbidea, elementu naturala, etab.



Urrestietako juntetxea



Paisaiaren Katalogoa Catálogo de Paisaje

Balmaseda - Zalla



Karrantzako haizpitartea, XX. mendeko lehenengo hamarkadan (Rio, Breuil, Sierra alkatea, 1911)



Galdamesko San Pedro auzoa (Enkarterrietako museoa)




Paisaiaren Katalogoa
Catálogo de Paisaje

Balmaseda - Zalla

Sopuertako dorrea (Bernadrod Estornés)



Orkonerako aire-tranbia Baldesko linea, Barbadungo paduren igarobidean



Bilbo-La Robla tren-makina



Lanestosako ikuspegi orokorra (1890-1900)



Lanestosako ikuspegi orokorra (1912-1913)

1.5.4 Literatura

Enkarterriei buruzko lehenengo idatzizko aipamena IX. mende ingurukoa da, Alfontso III.a Asturiasko erregearen kroniketan *Carrantia* (Karrantza) eta *Subportam* (Sopuerta) agertzen denekoa. Ordutik aurrera, aipamen berriak ageri dira: *Sanceto* (Saltzedoko Harana: Zalla eta Gueñes), 1143an; *Sumrostro* (Somorrostroko Harana: gaurko ezkerrekoa) 1068an; eta, azkenik, *Incartationis* (Enkarterriak), 1175en. 1390ekoa da Urrestietako batzarren lehenengo aipamena, garai batean jada egiten zirela zioten arren.

Lope Garcia de Salazar y Muñatones San Martin de Muñatones (Muskiz) dorretxean jaio zen, 1399an, eta kronikari izan zen. Kronista izateaz gain bandokidea izan zen, baina baita ere politikari trebea eta foruen defendatzailea. *“Bienandanzas e Fortunas”*, obraren egilea da; horri esker ezagutu dugu Bizkaiko Erdi Aroko bizitza.

Juan Ramon de Iturriza y Zabala (Berriz 1741 – Munitibar 1812) historialari bizkaitarrak, *“Epítome historial y Descripción de las Nobles Encartaciones del Señorío de Vizcaya”* obraren egileak, alegia, honela deskribatzen ditu Enkarterriak: *“Kantabriako parte kementsua eta gogoangarria”*¹.

“Bizkaiko mendebaldean kokatu behar dira. Eta mugakide hauek ditu: iparraldean, Kantauri Itsasoa; hegoaldean, Aialako lurra eta Okendoko Harana; ekialdean, Nerbioi eta jaurreriko lurak; eta, mendebaldean, Castro Urdiales, Villaverde, Mena eta Soba.

Hamar errepublika daude Enkarterrietan: Somorrostro Haraneko hiru kontzeju —Santurtzi, Sestao eta San Salvador del Valle—; Somorrostro Haraneko lau kontzeju —Muskiz, Zierbena, Abanto de Suso eta Abanto de Yuso—; Karrantzako Harana, Sopuertako Kontzejua, Artzentalesko Harana, Galdamesko Kontzejua, Gordejuelako Harana, Turtziozko Harana, Gueñesko Kontzejua eta Zallako Kontzejua.

Lurralde honetan, hiru herrixka lekutzen dira: Mendategalete, Balmaseda eta Lanestosa. Eta, oraindik ere, nolabaiteko luzapena emango diegu Enkarterriei, Burgos aldera —Villacre, Paresotas, Volediano, Villabentín, Bustillo, Moneo, Villaran eta Bascuñuelos—, Medina de Pomartik gertu. Eta Barakaldoko elizatera”:

Martin de los Heros y de las Bárcenas (1786-1859) idazle izan zen baita ere, historialari, militar eta politikari izateaz gain. Karrantzako Haranean jaio zen, eta idazlan hauek egin zituen: *“Historia de la villa de Balmaseda”* eskuizkribua eta *“Diccionario de hombres ilustres de las Encartaciones”* ia osoa.

Enrique de Vedia y Goossens (1802-1863) idazlea eta intelektuala izan zen; baita Espainiako probintzia ezberdinetako buru politikoa eta zenbait hiritako Espainiako Kotsula ere. Obra hau idatzi zuen: *“Memorias para la historia de la M.N.y M.L. villa de Valmaseda”*

1

¹ “Kantabrian” terminoak gaurko Kantabriarekin zerikusirik ez duten tokiak eta biztanleak biltzen zituen. Lur



Antonio Trueba (1819-1889)

Baina Enkarerrietako idazle garrantzitsuena Antonio Trueba —idazlea, poeta eta kazetaria— da. Oso gaztea zela Madrileran alde egin eta obraren gehiengoa han idatzi bazuen ere, bere idazkietan Enkarerrien jatorria antzeman daiteke. Hala, haren testu gehienek landa-munduko eszenak eta eszena kostunbristak irudikatzen dituzte, eta autore erromantikoen eragina dute.

"Cuentos de color de rosa" glosarioan, honela deskribatzen ditu Enkarerriak: *Bizkaiko Jaurerriaren parte bat izen horrekin da ezaguna aspaldidanik, Bilbotik gertu. Jaurerriaren eta Santanderko probintziaren arteko mendebaldeko mugaraino zabaltzen da, eta herrixka hauekin osatuta dago: Balmaseda, Lanestosa eta Mendategalete; Karrantza, Turtzioz, Artzentales, Gordexola, Santurtzi, Sestao, Trapagaran eta Somorrostro haranak (zazpi kontzejuak barne hartzen dituela: Muskiz, Abanto, Santa Juliana, Zierbena, Santurtzi, Sestao eta Trapagaran), eta baita kontzeju hauek ere: Sopena, Galdames eta Zalla.*

Alde batera utzi nobleen eskualde horren izenaren jatorria; izan ere, uste da Alfontso II.aren garaiko iraultza politikoak zirela eta Leongo Erresumatik ihesean Enkarerrietan sartu ziren Leongo noble batzuk emandakoa dela. Baina uste horrek ez du sinesgarritasun handiagorik Balmasedaren jatorria "malseda!" deigarrean dagoela dioenak baino; horren arabera, bat-batean irteten ziren herrialde zahar hura alfer-alferrik setiatzen saiatzen zirenak, azkeneko gerra zibilean lurrera botatuko bi gaztelu indartsuek defendatzen zuten eta.

Enkarerriek hogeita mila biztanle baino gehiago zituen, eta, nolabait esateko, Kantabria zaharraren bihotza izan zen. Bertako biztanle heroikoen, ordea, nahiago izan zuten heriotza, erregina hantustearen basailutza baino, haren lurraldea —Julio Cesar, Floro, Dion, Orosio eta beste historialari erromatar batzuen arabera—, Pirinioetako iparraldeko mugatik Asturiaseraino iristen bazen ere.

Julianok dio Arrazilo —izen horrek Kantabriar gerra famatuak oroitarazten dizkigu— Artziniega modernoa dela, Enkarerrietako mugakidea, gaur, garai batean Arracilo-negra izenekoa. Ruscelik uste du Vindio mendia —historialari erromatarrek kantauriar lurraldearen barruan lekutzen dute— gaur egun Urduñako Haitza izena duen mendikatea zela. Amanoko mendatea Bilboko ibaiadarrean —edo, hobe esanda, Castro-Urdialesen— zegoela dioen teoria oso onartuta dago. Gaur egun, Samano izeneko harana dago handik gertu. Amaitzeko, Pliniok aipatutako burdin-zainen mendia, Trianoko mendia da. Enkarerrietako kantabriartasuna, hortaz, ukazina da.

Enkarerrietan, ugariak dira nobleen oinetxeak, eta haietatik beti atera dira oso gizon ospetsuak.

Beste garai batzuetan euskara hitz egiten bazen ere —horrela erakusten dute tradizioak, abizen zaharrek, baserrien, mendien eta ibaien izenek, etab.—, pixkanaka galtzen joan zen, Enkarerrietako biztanleek gaztelarekin zuten harremanaren ondorioz. Horrela, azken horien hizkuntza nagusitu zen, euskarazko ahotsekin eta esapiderekin nahastuta. Gainerakoan, Enkarerrietako biztanleek itxura, ohiturak, eta aberriarekiko maitasuna mantentzen dituzte, Jaurerriko gainontzeko biztanleak goratzen dituzten ezaugarri bikainak, alegia.

Enkarterrietako lurrek hogei legoko zirkunferentzia daukate gutxi gorabehera, eta eremuaren parterik handiena basatia da, eta oso malkartsua, beste partea. Enkarterrietako biztanle langileak eta adimentsuak mendi gorenietako gailurrak ere laborantzarako erabiltzen dituzte. Mendiguneetan zuhaitz-mota hauek ageri dira: arteak, pagoak, haritzak, gaztainondoak, ipuruak, gorostiak, gurbitzak, eta beste batzuk. Haien egurrak eraikuntzarako eta ikatzetarako erabiltzen dira. Haranetan denetarik topa dezakegu: fruta gozoa —udareondoak, aranondoak, gereziondoak eta sagarrondoak—; baratzea eta mahastiak —ardoak oso zapore ona du—; senda-belarrak eta bazka bikainak. Uztarik nagusienak dira garia, artoa, babarrunak, ilarak, babak eta beste hazi batzuk, eta irin-errotari ugari daude.

Oso bide ederrak ditu, Euskadiren gainontzeko lurrek bezala.

Lurralde hartako mendietan kareharrizko harrobiak eta harrinabar batzuk ageri dira.

Burdin-, kobre- eta alkohol-meatze ugari daude, eta oraindik zilar-meatzeak batzuk geratzen dira. Uste da hortik datorrela Artzentales haranaren izena, euskal izena baita. Herrialderako benetako altxorra dira meatzeak, batez ere Somorrostroko haraneko burdin- meatze ezagunak, erromatarren garaian dagoeneko ustiatzen zituztenak; laster hasiko ziren kalitate oneneko milioika burdin-zain tona atzerrira eramaten.

Karrantzako Haranean dago Espainiako bainuetxe termal onenetako eta erabilgarrienetako bat, Guardamino jaunaren —Enkarterriak gehien ohoratzen dituzten semeetako baten— jelsiaren eta abertzaletasunaren mende.

Mendialdean, berriz, iturburu askok dute edateko ura, eta bost erreka eraten dituzte, haranetara isuriz. Hortxe dugu, ur-emariagatik garrantzitsuenak: Kadagua, Menako haraneko hegoaldeko partean jaiotzen dena, Enkarterriak zeharkatuz, Bilboko itsasadarrean itsasoratzeko; eta, bestalde, Somorrostro, Artzentalesko, Sopusuertako eta Galdamesko mendietatik datorrena, Pobeñako itsasadarretik Somorrostron itsasoratzeko.

Enkarterrietako haranek bisitatzea merezi dute; ez dute edertasun artistiko handiegirik baina bai beste modu bateko edertasuna. Han, Artzentalesko jurisdikzioan, aldizkako iturriak daude, eta uste da Tamaricas Plinio eta autoreak berak aipatutako Triano mendia izan daitezkeela. Enkarterrietan dago kono-formako Serantes mendia, Bowies naturalista jakitunaren ustez itzalitako sumendia. Hantxe dago zutik, espektro bat bailitzan, oinaztarren eta ganboarren garaian beti txardango bat jarrita zuen Jarako dorrea. Bertan dago baita ere San Martin gaztelua; han idatzi zuen Lope Garcia de Salazar ospetsuak ibilera eta zori onen liburua, XIV. mendean, seme-alabek estututa. Han, oinetxe bitxiak eta oso zaharrak daude, eta badirudi haien gezileihoetatik Erdi Aroko baleztak eta XIV. eta XVII. mendeko mosketeak azaltzen direla oraindik ere. Era berean, han dago Cerco izeneko goialdea, Sopusuerta eta Galdames kontzejuak itsasotik bereizten dituen haran estua menderatuz, eta bertan, Galiziako mendietan oraindik ere bereiz daitezkeen gotorlekuen antzeko gotorleku baten zirkuitua ikusi dezakegu. Laburbilduz, paisaia-elementu hauek aurki ditzakegu: Kadaguak ureztatzen dituenak bezalako haran emankorrak; Somorrostroko itsasadarretik Bilboraino doana bezalako lautada ederrak; zeruraino iristen direla diruditen tontorrek, hala nola Colisa, Cinto eta Alen; haitzuloak, Uragalako Magdalena —ermita bat dago barruan, eta erromesaldiak egiten dira—, eta Artekona —urteko garai jakinetan bapozeko metarri bat jariatzen zuen, lokomotorren kearen antzekoa; ur termalak, hain onuragarriak eta preziatuak, Molinarkoak kasu; eta aztarna beneragarriak, Sopusuertako San Martin eliza, adibidez, XVII. mende hasieran lurrera bota eta, tradizioaren arabera, X. mendean eraiki zutena. Liburu xume honek Enkarterrietako haranaren izen ezezaguna ezagutaraztea lortu du, Europa osoan zein Ameriketean. Egilearentzat huraxe da bere bizitzako poztasunik handienetako bat.



Jesús Etxebarria Mirones eta Txomin Etxebarria Mirones egileen obrak

Enkarterriak obra-gai nagusizat hartu duten idazle garaikideen artean ditugu Jesus eta Txomin Etxebarria anaiak; hona hemen beren obraren tituluak:

- *Tradiciones y costumbres de las Encartaciones.*
- *Ermitas de las Encartaciones: historia y tradiciones festivo-religiosas.*
- *Torres y ferrerías de las Encartaciones*
- *Orígenes históricos de Las Encartaciones. Siglos X-XIII: toponimia, onomástica y lengua propia.*
- *El habla montañesa o cántabra en la toponimia de Las Encartaciones.*
- *Toponimia y apellidos de origen prerromano en Las Encartaciones, Cantabria, Aiala y Las Merindades.*
- *Cantabros, autrigones y romanos en relación a las Encartaciones, Cantabria y las Merindades.*
- *Alonsotegi 1300-1888. Toponimia y lengua*
- *Orígenes históricos de los pueblos y barrios de Abanto y Ciérvana y Zierbena. 1068-1512*
- *Orígenes históricos de Barakaldo. Siglos XI-XIV*
- *Obras públicas de Balmaseda. S. XIX (8 zk.)*
- *La guerra civil en Balmaseda. 1936-1939 (6 zk.)*
- *Tal como éramos: Balmaseda s. XIX (5 zk.)*
- *Toponimia y apellidos de origen prerromano en las Encartaciones, Cantabria...*


1.5.5 Bidaia- eta turismo-gidak

Atal honetan, eskualdea sustatzea helburu duten dokumentuak eta gidak berrikusiko ditugu.

Arlo honetan nabarmentzen den lehenengo gida Juan. E. Delmasek idatzitakoa da, 1864n: "Señorío de Vizcaya. Guía Histórico-descriptiva Del Viajero"; honela deskribatzen du eskualdea: "Lursaila oso malkartsua eta menditsua da, eta batez ere haritzak, gaztainondoak, arteak eta gurbitzak ageri dira. Bertan hazten dira basurde asko, azeri lapur trebeak, otso batzuk eta Asturiasko mendietatik jaisten den hartza —udalerriek sari handiak dituzte esleituta animalia desager dadin—. Oso mendi altuak dituzte, eta bazka ugari, era guztietako abereentzat. Halaber, marmol iluneko harrobiak, eraikinatarako kareharrizko harrobiak eta burdinazko eta metal horiaren meatze agorrezinak ere badaude. Behe-lurretan, arto-uztak, babarrunak eta patatak aurki ditzakegu. Aititik, gari gutxi landatzen da, kalitate onekoa bada ere, eta babak, lihoa, arbiak, gaztainak, sagarrak, udareak, gereziak, mertxikak eta beste fruta batzuk ere laboratzen dituzte. Duela gutxi 80 edo 90.000

txakolin-pegarreko uzta egiten zen; baina etekin hori asko murriztu da 1851etik, oidium tukery lehenengo aldiz agertu zenetik, alegia. Izan ere, horren ondorioz, jabe askok errotik kendu zituzten mahastiak. Dena den, txakolina edo herriko ardoa beti izan da Enkarterrietako laborantza nagusia. Hala ere, lurzorurako garrantzitsuena, herrialde guztirako eta penintsularako, eta baita atzerriko ere, haren XXXIV mendeko Historia Naturalaren XIV. kapituluak Pliniok aipatutako Trianoko mendi famatua da, Somorrostron dagoena. Haren hegala ozeanoaren legoa laurdenetik Muskizko San Julian alderaino iristen da, eta kalitate oneneko burdin meategia du, agorrezina. Lantegi handietara eta burdinoletara esportatzen da, Bizkaian, Araban, Nafarroan, Santanderren eta Asturiasen, eta baita Frantzia eta Ingalaterran ere.

Bost dira Enkarterri nobleen lurra bustitzen duten ibaiak: lehenengoa Kadagua da; haren ibilgua trazatu dugu dagoeneko deskribapen orokorrean: bigarrena Lantenoko mendietan eta Artziniegako haitzean jaiotzen da, erreka askotako eta Zaldu mendiarteko ibaiko urak jasotzen ditu, eta Sodupeko zubian bat egiten du Gueñeskoarekin: hirugarrena San Sebastian de Colisa tontorretik dator, Artzentalesko eta Sopuertako Haranak bustitzen ditu, eta Galdames jaisten duenarekin bat egiten du, Pobeñan itsasoratzeko: laugarrenak Colisa, Mena eta Karrantza arroak saltatzen ditu, eta Villaverdetik eta Turtzioztik jaisten da, Oriñonen itsasoratzeko: amaitzeko, bosgarrena, haranaren hegoaldeko zenbait iturrietan jaiotzen da, eta Biañesko elizatik jaisten den beste ibai batean zabaltzen da, Gibaja igaro eta gero Redoko zubian urak isurtzeko. Ibai horietan guztietan ugariak dira espezie hauek: aingirak, amuarrainak, errutilo hegatsgorriak, loinak, barboak eta karramarroak; batzuk izokinak hazten dituzte gainera. Bertako urek laurogeita hamasei errota mugitzen dituzte".



Bidaiatzeko gida ohikoenek Julia Gomez Prieto Deustuko irakasle emerituaren testuak biltzen dituzte. Historia Modernoan eta Garaikidean doktorea ere bada, eta Deustuko Unibertsitatean Turismo diplomaduna.



Aipatu behar dugu 1999n ENKARTUR Enkarterrietako Turismo Elkarte sortu zela, kide hauekin: erakunde publikoak, enpresak pertsona fisikoak eta kultura- eta kirol-elkarteak. Haren helburua da turismoa sustatzea eta dinamizatzea; beraz, liburuxka eta mapa ugari argitaratuko dituzte eskualdeko bisitariei emateko. Gainera, zenbait gida dituzte web orrian, turismo-errekurtsoen zerrenda batekin, honela sailkatuta:

- Aisialdirako guneak
- Mendi-bideak
- Armañongo parke naturala

Paisaiaren Katalogoa Catálogo de Paisaje

Balmaseda - Zalla

- Kobazuloak
- Karpin Abentura
- Toki interesgarriak
- Museoak

1.6 Paisaia esanguratsuenak

Deskribapen honetan paisaia esanguratsuenak aipatuko ditugu, gure lurraldean ugariak eta era askotakoak baitira: ebakiak, haizpitarteak, alturako bazken tontor luzeak, larre- eta harizti-paisaia zoragarriak, kareharrizko tontorrak eta mendilerroak, haran-hondoko larreak, eta, zergatik ez, pinudi-haran osoak; baina baita hiri- eta industria-paisaia adierazgarriak ere, ikusiko dugunez.

1.6.1 Ordunteko mendilerroa

Ibilbidea mendebaldetik hasten badugu, **Ordunteko Mendilerroarekin** egingo dugu topo, paisaia garrantzitsuenetako batekin, alegia, Zalamatik Burgeñoraino eta Koltzaraino. Mendilerroak lurraldeko paisaia bikainenetako bat du, ia alpetarra, bertako haizpitarteekin, tokiko basoekin, pagondoekin eta malkar handiko haranekin. Askorentzat ezezaguna denez, paisaiak are gehiago txunditzen du.

Haren isurialdeetan jaiotzen diren ibaiek eta errekek haran hauek sorrarazi dituzte: Calera (Lanestosa), Karrantza, Turtzioz, Artzentales eta Sopuertako Koltza, Acebo eta Balmasedako Koltza haranak. Izan ere, lurraldeko haranen % 60 baino gehiago sorrarazi ditu, eta hegoaldeko mugaren erdia baino gehiago Burgosko probintziarekin definituta dago.

Ia guztiz ortogonal da Bizkaiko sistema handiekin eta Urkiola, Gorbeia, Orduña eta Salvada mendiguneekin, eta haiekin talka egiterakoan, Koltzan eta Escritako mendatean, ipar-ekialdera begira dagoen Karrantzako arro itxia definituko du, eta, hego-ekialdetik ipar-ekialdera dauden mendiguneari elkarzut zeharkatu beharko dituen Kadagua sorraraziko du, bestaldean.

Lurralde Plan Partzialak paisaiaren parte handi bat natura-gunetzat sailkatzea proposatu du, eta benetan uste dugu aintzat hartu beharreko kontua dela, etorkizunean erkidegoko parke naturaletan sar dezaten.

1.6.2 Ubal mendilerroa

Paisaiaren hondoan, Lanestosako banalerroa eratuz, **Ubal mendilerroa** dago, zenbait muinoz eratuta alturako bazkekin, eta historiaurreko monumentu anitzekin. Bereziki ikusgarriak dira haren banalerro-kokapena, deforestazio zaharra, abeltzaintza-ustiapenak eta santutegi eta tumuluak. Arrazoi horiengatik uste dugu paisaia esanguratsua dela. Hona hemen tontor garrantzitsuenak: Bernalta, Cotobasero, Muro eta Muela, Ubal mendatetik jarraitzeko, Peña del Moro haitz aldera.

1.6.3 Calera ibai-harana

Ezbairik gabe, beste paisaia garrantzitsuenetako bat **Calera ibai-haranak** eratutakoa da; bertan dago Lanestosa herri monumentalak. Ibai herri eta haran guztia haizpitarte batean dago, errepide zaharrek zeharkatuta, eta ibaiaren presentzia etengabekoa da, lautadaren eta itsasoaren arteko pasabide zahar baten antzera; hegaletako basoak ere aberastasun handikoak dira. Ezaugarri horiek guztiek aparteko paisaia bihurtzen dute.

1.6.4 Raneroko haitzak

Ipar-ekialdean, Karrantzarekin muga eginez, kareharrizko zubi bat dugu, **Raneroko Haitzen** jarraipena, alegia, Lanestosako haizpitarteraino. Gorenean, berriz, Kantabriatik bereizten gaituzten kareharrizko tontorrak daude, eta alturako bazkak ematen dira han. Oinean hazten diren artadiak edertasun izugarria ematen diote paisaiari, pistek eta telefonia-antenek kalte egin badiote ere.

Funtsezko paisaia da, izan ere, Raneroko eta Lanestosako haizpitarteak batzen ditu; hortaz, Euskadiko ipar-mendebaldeko muturra da, eta, horregatik, hobeto zaindu behar da. Tontor hauek dira garrantzitsuenak: Peña de las Minas, Sopeña eta Mazo.

1.6.5 Armañon – Alen

Hurrengo paisaia esanguratsuen, tamaina dela eta, Ordunteko mendilerroarekin aldera dezakegu, eta tontor-sistema honek eratutakoa da: Raneroko Haitzetatik eta Karlistaren tontoretik (719 m), Cueto zeharkatuz, Armañonera iritsi arte (854). Bertan, **Kantabriarekin banalerroa** eraten du, eta, gero, hegoaldera jaisten da Turtziozko banalerrotik, Escrita mendateraino, eta, ekialderantz, Jorrios (837 m) eta Zarikete tontorretaraino, Turtziozen iparraldeko muga definituz.

Paisaia honek kareharrizko paisaia zoragarria du iparraldean, Kantabrian urak isurtzen dituen, eta paisaiaren erakargarritasun handienetako bat dena. Zorionez, mendikate horrek guztiak, hegoaldeko mendi-adarrekin, Turtziozko mendebaldeko lurraldea definitu eta gaur egungo Armañongo parke naturala eraten du, Euskadi eta Kantabria arteko ipar-mendebaldeko mugan dagoen parke natural handia, hain zuzen, oso ezezaguna bada ere.

Bestalde, kareharrizko zonak bazketarako tontorrek osatzen ditu, eta hegal oihantsuekin, hegoalderantz eta ekialderantz; hala, Karrantzako iparraldeko paisaia eta Turtziozko mendebaldeko hegalak definitzen ditu. Natura-gune horrek izango lukeen interesa imajina dezakegu, baldin eta La Escritatik Ordunteko parke naturalerantz jarraituko balu, Karrantza inguruan mendi eta baso-zirku handi bat eratur. Era berean, parke naturalak Karrantza ibaia sartu eta Raneroko Haitzetan Mazo, Minas eta Sopeña aldera jarraituko balu, Raneroko haizpitarte babestuko luke, eta Calera ibairaino iritsiko litzateke, Lanestosan, Euskadiko hegoaldeko muturrean parke naturalen zirkulu handia eratur, sarrera moduan.

1.6.6 Karrantzako artoa

Aipatu ditugun paisaia horiek guztiek gure ustez paisaia esanguratsuenetako bat ingurutzen dute: **Karrantzako Harana edo artoa**. Larreen, basoen eta herrixken harmonia perfektua, gune garrantzitsu guztietan baselizak daudela, arkitektura herrikoa eta kultu monumentala. Gizakiaren eta naturaren arteko bizikidetzaren adibide argia da, aparteko paisaia gizatiartua. Ezinbestekoa da paisaia hau babestea, gaur egun oso mehatxatuta baitago, kalitate txikiko hirigintzaren eta arkitekturaren ondorioz. Horrenbestez, herrixkak, eta, batez ere, haran-hondoko guneak, arriskuan daude.

1.6.7 Artzentaies

Artzentaiesko paisaia zoragarriak Karrantza gogorarazten digu, nolabait, neurri txikiagoan bada ere. Aparteko toki batean dago, Turtzioz eta Sopuerta aldera ekialdetik mendebaldera doazen errekek jaiotzen diren goi-mesetan, eta bertako larre eta basoek, eta baita herrixkek ere, naturaren eta gizakiaren obraren arteko harmonia ezin hobea erakusten digute. Nortasun handiko paisaia da, goian baitago, dena kontrolpean duela. San Miguel gaztelu tenplario zaharra ere badugu: bertan egiten ziren haraneko batzarrak, oraindik ere enborra mantentzen duen zuhaitz handi baten oinean. Bertatik, Santa Cruz ikus daiteke iparraldean, eta Traslaviña, hegoaldean, ekialdeko sarbideak kontrolatzen baititu. Mendebaldera, Turtzioz harana ikusten da, eta ekialdera, berriz, Otxaranera eta Sopuertara jaisten diren haranak.

Herrixkek arkitektura bikaina dute, egurrezko galeriak dituzten etxe turtziarrekin, baserriaren eta etxe kantabriarraren arteko sintesia direnak.

Eskala txikia da bere balio handienetako bat, baita bere kokapena ere, haranen banalerroan; iparraldean eta hegoaldean tontorrak ageri dira. Iparraldean, Betaio eta Alen kareharrizko sistema; eta, hegoaldean, berriz Koltzara eta Garbeara igotzen diren alturako bazken mendikatea.

Hain zuzen ere, hegoaldeko ertz honetan, aipagarria da Cocino (686 m) tontoretik Oncilla aldera (653 m) jarraitzen duen edo Cabezan (567 m) tontorrean amaitzen den bazketarako paisaia, ez bakarrik abeltzaintza-aberastasunagatik, baizik eta Aguera ibaiaren artoa definitzen duelako, tokiko baso-hedadura zoragarri batekin. Ordunte mendiaren goren-unea da, nolabait esateko, Burgeño eta Koltza ibaiekin eta Aguera ibaiaren sorburuarekin. Haren balio naturalari Gorgolas herrixka gehitu behar diogu, aldatu gabe mantendu duen arkitektura herrikoiarekin.

Turtzioz eta Artzentales haranean kareharrizko tontorrak ikus daitezke berriro ere, eta Armañongo, Raneroko eta Guriezoko iparraldeko kareharrizko sistemaren jarraipena besterik ez dira.

Ventoso mendia menpean (727 m), Guriezo eta Castro Urdiales herrien mugan, Turtzioz eta Artzentales menperatzen dituen Betaio (850 m) mendiraino jaisten dira tontorrak, artadi-tontor zoragarriekin, Gordon aldera, eta, Alen (803 m) tontorrarekin, Artzentales eta Sopusuerta aldera, hondo zoragarria eratuz, Santa Cruz eta Artzentales gutzira.

Mendikatea Hayarantz (558 m.) eta las Muñecas mendatera jaisten joango da, ekialdean, eta kareharriak gordeko ditu. Gero, Mellora (633 m.) berriz igotzen da, Motellano eta Barbadunen, dagoeneko, eta Sopusuertako iparraldeko eszenatoki guztia definituko du, bertan pinudi eta eukalipito basoberritzeak nagusituko direlarik.

1.6.8 Aguerako Harana

Turtziozko Oriñon herrigune txikian urak isurtzen dituen **Aguerako Harana** falta zaigu aipatzea. Haren eszenatoki ederrean Armañongo parkea da nagusi, mendebaldean, eta Betaio, berriz, ekialdean. Halaber, monumentu-multzo izugarria du, ez bakarrik herriguneetan, baita hiriburuan ere. Dorretxeak, jauregiak, etxe turtziarrak eta zezen-plaza duen eliza handia ugari ditugu Karrantza, Turtzioz eta Sopusuerta bezalako haran autrigo zaharretan. Arkitektura nagusitzen den haran-hondoa da, Aguera ibaia ondoan duela; izan ere, herrixkek Romañako arkitektura zoragarria dute. Cueto, Pando, Basinagre, Gordon.

1.6.9 Ubieta / Zipar mendikatea

Kantauriar itsasora zuzenean isurtzen duten haranekin jarraituz, beste paisaia garrantzitsuenetako batean sartuko gara: Kadaguako haranetik **Ubieta/Zipar mendikate** luzean bereizita geratzen den Sopusuerta-Galdames harana. Mendikatea Alen tontorrean (803 m) jaio zela jo dezakegu; baina morfologia ezberdina du. Artzentalesko eta Sopusuertako muga jarraituz, Longuitas (590 m.) eta Peña del Paso (511 m.) tontorrak ditu, eta oinean, Artzentalesko Koltza eta Valdebizi ibaiak; Cabeza (491 m.) eta Cabana (528 m.) tontorrek jarraitzen du. Horien artean, Barbadun ibaia, eta Artegi (537 m.), Ubieta /Zipar (632 m.) eta La Bruz (625 m.) tontorrak aurkitzen ditugu. Gueñesko Umaran mendatea gurutzatu ostean, Luxar (542 m) gainean amaitzen dela jo dezakegu, eta Orokon, Sodupen, Eretzaren oinean.

Mendikateak banalerro leuna eratzen du, Kadaguatik; baina Sopusuertatik eta Galdamestik oso barrera altua du, malkartsua eta menditsua, tokiko zuhaitzi ederrekin. Halaber, garrantzi geografiko eta historiko handia du: Enkarterriak banatzen ditu, iparraldetik hegoaldera, bertatik igarotzen da Castrotik lautadaraino zihoan erromatarren bidea, eta haren mendatean lekutu zen Urrestietako juntetxea, Enkarterrietako erdigune politikoa, alegia. Bestalde, haren oinean ermita ugari ikus daitezke, iparraldetik hegoaldera: San Martin, San Kosme, San Lorentzo, Santa Maria, Magdalena, eta Loitzagako Santiago, iparraldeko haraneko guneko espirituala.

1.6.10 Sopusuerta

Sopusuerta-Galdames haranetan gaude; bi haranek arro geografiko bakarra eratzen dute, baina oso ezberdinak dira. **Sopusuertan**, nagusi dira itsasorantz doan Barbadun ibaia eta mendebaldetik datozen ibaiadarrak, batez ere Koltza, ia tontorraren oinean jaiotzen dena, eta Baldebeziren ibaiadarrak txikiak. Gainera, haran zabal hau markatuta geratu zen, Muñecas aldera zihoan erromatarren bidearen ondorioz. Horrenbestez, oso haran urbanizatua da gaur egun, eta erdigunean larrez betetako eremu diafanoak baditu ere, urbanizazioaren mehatxupean dago. Muñecas eta Alen tontorretatik jaisten diren baso zabalez inguratuta dago gainera, eta Artzentales eta Otxaran herrietatik bereizten gaituzten Longuitas, Cinto eta Zipar mendilerroen hegoaldeko-muga da.

1.6.11 Galdames

Sopuerta ireki eta urbanizatu horren parean dago **Galdames**, basotuagoa eta altuagoa, ekialdean jaiotzen eta Barbadunen hiltzen diren bi haran paraleloekin. Bi haran horiek eratzen dute Galdames, eta bien artean, Peña del Moro haitza dago, gotorleku zahar batekin; haren oinean, berriz, aurrealdean, Sopuertara begira, Galdamesko San Esteban ikus dezakegu.

Aparteko paisaia da, dudarik gabe. Hegoaldean, haran txiki bat du, birjina oraindik ere, eta Loitzagako dorrea eta baseliza daude bertan, Sopuertatik Gueñes aldera zihoan bide zahar batean, Zipar eta Cruz mendien oinean.

Iparraldeko harana sakonagoa da eta populatuago dago. Ustiapen, meatze eta trenbide arrastoak ditu, eta Galdamesko San Pedron amaitzen da, mendebalderantz zertxobait ezkutatuta. Kadaguara mendateetatik jaisten zen bide zaharrarekin batera agertzen zaigu.

Bertako landaredia, edertasuna, haran-norabidea —Barbadun ibaiarekin ia elkarzut— eta altuera dira Sopuertatik bereizten dutenak; hori dela eta, harana bi paisaia garrantzitsuetan bana dezakegu.

1.6.12 Grumerango mendiak

Galdamesek **Grumerango mendiak** egiten du muga iparraldean, eta Ganeranen gailentzen da, iparraldean, eta Eretzan, ekialdean.

Ustiapenak jasan bazituen ere, kareharrizko tontor altuak dituen mendikate zoragarria da. Jatorrizko basoen parte handi bat berreskuratu du, eta alturako bazkak eta tumuluak mantentzen ditu, Gamerandik Eretzaraino.

Luzera handikoa da. Barbadungo haizpitarteak eratzen ditu, Montellanoren oinean, eta Alen-Betaiotik Muñecaseraino doan eta Barbadunek Mellon moztutako mendikatearekin elkartzen da. Era berean, Kadaguako haizpitarteak eratzen ditu, Zamanilloren eta Soduperen artean, eta Eretzarekin batera Kuadaguaren ate ikusgarria eratzen du, Ganekogortatik (998 m.) jaisten diren hegalean parean.

Mendikate horrek guztiak babes-proposamenetan jasota dago jada, Lurralde Plan Partzialean; baina benetan uste dugu parke natural baten parte izan litekeela, Melon eta Alen mendikatearekin bat egin eta Armañoneraino iritsiko zena. Horrela, Lanestosatik Kadaguara arteko kareharrizko mendilerro guztiak bat egingo luke, eta Calera, Karrantza, Aguera, Barbadun eta Kadagua ibaien pasabideek bakarrik bereiziko lukete. Horrek guztiak batasuna emango lioke benetan unitarioa den baina oso zatituta dagoen lurralde bati; izan ere, zatiketa horrek unitate-izaera galarazten dio, zenbaitetan.

Ekualdeko hego-ibilbideari hasiera emango diogu; haran guztiak orain arte ipar-hego norabidea bazeramaten, itsasora begira, Kadagua eta Herrerias ibaiek mendebaldeko-ekialdeko bi haranak definituko dituzte orain, eta han, jarduera ezberdinak eta pinudiz betetako paisaiak ikusiko ditugu.

1.6.13 Balmaseda

Kadaguan, lehenengo paisaia esanguratsuena **Balmasedakoa da**; barruti horretan, harana estuagoa da, eta mendi-tontor oso altuak ditu, mugetan: Kolutza (879 m.) eta La Bandera (696 m.). Bizkaiko ate hori haizpitarte luze batekin ixten da, Zallarantz: La Herreran (ekialdeko inbasioen babeslekua izan da historia osoan). Oso kokapen geografiko zaila du, eta agian arrazoi horregatik batzen ditu hegaletako pinudien nagusitasuna eta beste apartekotasun bat: Balmaseda Erdi Aroko herrirka monumentala.

Paisaia oso bereizgarria da, hortaz, pertsonalitatea handikoa; iparraldean, Kolutza-Garbea arku handi bat eratzen du mendikateak, Balmaseda inguratuko duten Kolutza eta el Acebo errekek eratuz. Arku handi horrek la Altatik eta Bolunburutik jarraitzen zuela jo daiteke, haizpitarteak eratuz; hegoaldean, berriz, Celadilla eta Banderas isurialdeek Angostura erreka definitzen dute, Balmaseda eta Herrera haizpitarteak banantzen dituenak.

1.6.14 Zalla - Gueñes

Balmaseda zeharkatu eta gero harana zabaltzen doa, **Zallatik eta Gueñestik**, Soduperaino; hala, Somokurtziotik (686 m.) eta Ilsoitik (564 m.) Berbikiz aldera jaisten diren haran-hondoko larreak, erdi-hegaleko herrixkak eta hegala oihantsuak ikus ditzakegu, Gordexolatik bereiziz.

Haran zabal honek Zalla eta Gueñes-Sodupe herriguneak biltzen ditu. Horrenak ziren haran-hondoko larre gehienak, eta hirigintzak asko eragin dio, orokorrean; haren nolabaiteko itxura neurrigabeak eta nahasgarriak, hortaz, eskualde osoaren pertzepzioa aldatu du.

Oraindik ere sekzio oso aberatsa mantentzen du: Zipar, Artegi, La Kruz eta Luxar tontor harritsuak, iparraldean, eta Alekun eta Ilso mendi-multzoak, hegoaldean; herrixka zaharrak inguratzen joan diren pinudiak, batez ere hegoaldean; herrixkak eta larreak, iparraldean, eta hegala seinaleztatzen dituzten baselizak —San Lorenzo, Santa Marina, Magdalena, San Pedro—; eta, amaitzeko haran-hondoko herriguneak, dorretxe, zubi eta errota zaharrekin; bilbe honetan guztian, berriz, industrialdeak, eta ibarbideek hartuko dituzten auzo berriak, haranaren gardentasuna zatituz eta haren unitatea aldatuz; eta, ezbaierik gabe, elementurik garrantzitsuena, ibaia alegia, zenbait areatan oraindik ere ezkutuan eta ia ahaztuta dagoena; hura berreskuratzea da, erriberako basoekin eta lareekin batera, paisaia honen abagunerik garrantzitsuena.

1.6.15 Otxarango Harana

Paisaiaren osagarri, **Otxarango Haran** txikia ageri da, Retola errekarrekin; erreka hau Urrestieta inguratzen duten Cabeza eta Cabana hegaletan jaiotzen da; hegoaldean, Garbeako hegaletan, eta mendebaldean, berriz, Koltzaren banalerroan, Artzentalesen dagoeneko, Beziren eta Herbosaren artean.

Hegoaldean, Altako eta Bolunburuko mendilerro txikiak definitzen du harana, eta Garbea alde batera utzita Herrerako haizpitarteak eratuko ditu Kadaguan; haran txiki hau paisaia esanguratsua da, izan ere, Kadaguaren ibaiadarra bada ere, Artzentalesen antza gehiago du, larreen eta herrixka txikien antolaketa dela eta. Aldatuago dago ordea, zeharkatzen eta zatitzen duten trafiko-bideen eta herrixketako saihebidetuen ondorioz.

1.6.16 Sopuerta-Zaramillo haizpitarteak

Kadaguari dagokion beste paisaia bat —bere berezitasunagatik ezberdindu badaiteke ere— **ekialdeko haizpitarteak** eratutakoa da, Sodupetik Zaramillora. Kadaguak Nerbioi aldera irteteko induskatu zituen Eretzako eta Ganekogortako hegala izugarriek aparteko haizpitarteak definitzen dute, eta bertan dagoen ibaiak, Zaldu handitutakoak, garrantzia handiagoa hartzen du. Zoritzarrez, autobiako, errepideko eta transformazio-zentroko mozketak konponezinak dira, eta, horrek kalte egin dio aparteko paraje bati. Zalantzarik gabe, paisaia honek zainketak eta neurri zuzentzaileak beharko ditu etorkizunean.

1.6.17 Quadra-Lakabex

Aipatzea merezi duen beste paisaia esanguratsua bat Ganekogortatik behera **Quadra-Lakabexko** dorrera iristen den haran txikia da, lehen aipatutako haizpitartearen bihotz-bihotzean, hain zuzen ere. Haran txiki honek tokiko landaredia ugaria du, eta tontor handietara iristen da, Ganekogortan amaitu arte.

Hain isolatuta eta eskuragaitz dago ezen hasiera batean ez dator plangintzetan, ezta babesetan ere; hala ere, funtsezkoa da, duen berezko balioagatik eta eskualdeko ekialdeko muturra, eta, parte batean, Kadaguako haizpitarteak definitzeko dituelako.

1.6.18 Herrerías iba-harana

Eskualdeko hegoaldeko harana dagokigu orain, **Herrerías harana** eta haren ibaiadarra, Zaldu. Herrerías ibaiak Gordexola definitzen du, eta Kadaguako Harana baino txikiagoa bada ere,



pertsonalitate handikoa da, izan ere, Kadaguan bezala, haran-hondoak garapen modernoak izan ditu, eta hiri jarraituak izateko arriskua du. Bertan, dorretxe zaharrak eta hirigunea ikus ditzakegu —San Juan elizarekin—, baina tontorretarantz, hegaletan sakabanatuta zeuden herrixka txikiak: iparraldean, Berbikizko San Juanetik jaisten zirenak (haran-populatzearen jatorria), eta, hegoaldean, Alto de la Banderatik jaisten zirenak. Azken horiek larreak galdu dituzte, pinudien ordeaz; horren ondorioz, baserri txikien iraupena arriskuan dago.

Izan ere, aipatzekoa da haranaren baso-nagusitasuna eta abeltzaintzaren desagertzea. Are nabarmenagoa da mendebaldeko muturrean, Kadaguan, esaterako, izan ere, mendiek garaiera handiagoa dute, eta maldak gogorragoak dira. Hori dela eta, oso herrixka gutxi zeuden hegal-erdian, eta haran-hondoan biltzen zen populaketa; beraz, baso-nagusitasuna area handiagoa da.

Herrerias Haraneko paisaia bereizgarri hau Urarte gunearen atzeko haizpitartean hasten dela jo dezakegu, Ilso tontorretik (564 m.) eta Santurtziko mendi-adarretatik (486 m.) gertu. Bertako herriguneak Iratzagorria eta Artekona dira, eta dorretxe ugari dituzte baita ere.

1.6.19 Aiega ibai-harana

Paisaiaren barruan, aipagarria da baita ere **Aiega edo Rodaiega ibai-haranak** definitzen duen eszenatokia; haran birjina da, basokoa, erabat, eta posible da behinola Donejakueren bide-adar bat bertatik igaro izana, Gaztelara bidean. Jauregi-dorretxe handi bat eta Santiagoko basiliza dira haranaren bereizgarriak.

1.6.20 Zalduko Harana

Amaitzeko, **Zalduko Haranaren** paisaia aipatu behar dugu; Ganekogortaren oinean hegoaldetik iparraldera doan ibai txiki bat da, Herrerias ibaira urak isurtzen dituen, Kadaguarekin topo egin baino pixka bat lehenago.

Haranak larre zabalak mantentzen ditu ibai-ingurunean. Ibai-ingurune horretan lekutzen da bereziki populaketa, dorretxe ugariekin eta arkitektura herrikoi nabarmen batekin. Ganekogortatik datozen ekialdeko hegalek hainbestearainoko malda dute ezen ez baitago herrixkarik; mendebaldeko hegalak leunagoak dira ordea, eta Bandera tontorretik behera herrixka edo baserri asko zeuden, 16 inguru, larrez inguratuta, gaur egun pinudiak nagusi badira ere.

Haranaren berezitasun bat da errepidea ez doala haranetik, pixka bat gorago baizik, hegal-erdiatik; hala, haran-hondoko larreen eta guneen behatoki zoragarri bat da, eta agian horregatik hobeto mantentzen da. Haran honek zubi lanak egiten ditu, Okondo, Laudio eta Artziniega lautadekin komunikatzen gaituelako, Urduñako eta Gaztelako mendilerroaren goi-lautadaren oinean dagoen lubaki handian.

1.7 Paisaian gehiago eragiten duten jardueren eta prozesuen dinamikak

Tontorretatik haranera doan paisaia-ibilbidea egiten badugu, paisaian eragiten duten jarduerak eta prozesuak azalduko ditugu.

1.7.1 Tontorretako eta goi-kotetako dinamikak

Hasteko, zorionez, tontorrek jasandako eraso bakarrak **komunikazio-antenak** dira, eta haietara igotzeko mendi-bideak. Aipatzekoa da Peña del Moro haitzaren oinean dagoen antena, baita Zalla-Gueñesen dagoena ere.

Goi-kotetan antzeman daitekeen hurrengo prozesua **alturako bazkak** dira. Ustez, historiaurretik mendilerroak deforestatu ziren, eta, horrenbestez, bazka baliotsu hauek agertu ziren; oso paisaia bereizgarria eta lehenetsia eratzten dute, hortaz, baina badirudi abeltzaintzaren gehiegizko presioak higadurari ematen diola bide, noizbait.

Goi-kotetan agertzen den hurrengo prozesua **basoko-suteak** dira. Hainbatetan, tontor-oinetaraino iritsi dira gainera. Zalaman, esaterako, area zabalak deforestatuta utzi dituzte, etorkizunean higadurak jasateko arriskuarekin. Aipatzekoak dira baita ere azken aldian Kadagua, Alonsotegi, Gueñes eta Herrerako Zalla Haranetan gertatu diren suteak, malkar gogorreko goi-hegaletan; itxura denez, sute horiek guztiak nahita egindakoak izan dira.

Hurrengo prozesuak erreferentzia egiten dio baso, pagadi, harizti eta artadi zaharren areari. Area hori pixkanaka basoberritzen joan zen ordea, espezie hauekin: pinudiak, eukaliptoak, altzifreak, haritz amerikarrak, etab.

Basoberritzeak izan dira pasadan mendeko paisaia-aldaketaren funtsezko eragilea, eta haiek gabe ezin dugu gaurko paisaia ulertu; txilardiak, basoak, larreak eta laborantza-lurrak hartu zituzten, eta gure eskualderi, batez ere hegoaldeari, baso-izaera eman zioten. Gaur egun, prozesuek aurrera egin dute, eta pinudien artean tokiko basoa mantentzea gero eta onartuago dago; halaber, area handietan tokiko basoa leheneratuko da, pixkanaka, pinudiaren hedapenarekin bat etorritz.

Eukalipto-sailaren kasua kezkarriagoa da, izan ere, area handiak hartzen doa pixkanaka, hotza hobeto jasaten duen bariatate berri batekin, batez ere eskualdearen iparraldean, tenperaturak leuntzen dituen itsaso-eraginetik gertuago dagoen arean.

Altzifreen eta haritz amerikarren lehengo basoak aspaldiko basoberritzeen testigantzak besterik ez dira.

Egurraren, paper-orearen, eta energiaren prezio-aldaketek baso horien bilakaerari eragingo diote, baina tokiko basoa mantentzeko nahia handiagoa izango da, pinudia onartzen bada ere, eukaliptoen aurkako gizarte-prebentzio handiago batekin.

Hori dela eta, zaila da aurreikustea basoberritzeek behera egingo duten, eta larreak okupatuko dituzten; ziurrenik behera egingo dute, pixkanaka-pixkanaka, muga berri bateraino.

1.7.2 Hegalak eta erdi-kotak

Aurreko atalean basoberritzei buruz hitz egin badugu ere, maila honetan ere dinamika bera ikus dezakegu; gero eta gehiago, gainera, azken urteotan basoberritzeen kota haran-hondora gerturatzen joan baita.

Hegaletako okupazioaren hurrengo maila **larreak izan ziren**. Gordexolan eta Kadaguan ia desagertu badira ere, bizirik jarraitzen dute Karrantzan, Turtziozen eta Artzentalesen, eta mehatxatuago, berriz, Sopuertan. Erdi-hegaleko larre hauek herrixkei eta auzoei lotuta zeuden, eta, askotan, zuhaiztiak zituzten tartean; horietako asko belaunaldi-txandakatarik izan ez duten ustiapenen lekukotasunak besterik ez dira. Hainbatetan, joera, zona horiek pinudiz okupatzea da, baso-ertzetan, edo urbanizatzea, herriguneetatik gertu baldin badaude. Agian horixe da mehatxurik

handiena, landa-nukleoaren mugetan sartzea, alegia, eta, horrenbestez, urbanizatzeko aukera ematea; mehatxua are handiagoa da gainera muga horiek trazadura zabalegia badute, hainbatetan.

Larreek mehatxu berria dute: txakolina; behinola paisaiak mahatsondoan oinarritutako nekazaritza garrantzitsua bazuen ere, bide eman zion abeltzaintza-ustiapenari, argi eta garbi. Nekazaritza-sektore indartsua bihurtu da txakolina berriro ere, eta are gehiago haziko da gainera, abeltzaintza-sektorearen kalterako; baina inoiz ez da txarra sektore berri bat agertzea, nekazaritza, kasu honetan, eman daitezkeen klimari eta espezieei egokituta, balio erantsi handiarekin.

Paisaiaren muga hauetan **harrobiez** hitz egin dezakegu dagoeneko; beren egoera dela eta, erdi-hegalei eragiten diete, haranaren-hondotik tontor-oinera iritsi arte. Sortzen diren aberastasuna edo lanpostuak alde batera utzita, paisaiak jasan dezakeen erasorik handiena da, zalantzarik gabe, berreskurazina, gainera. Eskualdeko lau aktiboak hazten doaz gainera, harkaitzak eta artadiak desagerrarazi dituzte, eta erabat aldatu dute eskualdearen pertzepzioa.

Erdi-hegalean lekutu ziren baita ere **zabortegiak**. Gordexolakoa itxita dago dagoeneko, baina Zallakoak kalte egiten dio paisaiari, ez bakarrik goi-kotetan dagoelako, gordailuen sorrerak eta haren iragazgaiztasunak eta sarbideek suntsiketa asko eragiten dituztelako ere.

Halaber, erdi-hegalean daude eskualdeko **argindar-lineak**. Oso esanguratsua da haien kopurua eta bikoiztasuna, Quadra-Lakabexko transformazio-zentro handiak eta Gueñesko transformazio-zentro txikiago batek eragindakoak.

Aipagarria da erdi-hegaleko **herrixka txikien hazkunde-prozesua**: etxe berriak, pistak, argiak, etab. Karrantzan eta Artzentalesen, esaterako, paisaiaren bilakaera nabarmena hautematen da; izan ere, siluetak, formak, koloreak, eta motak aldatu ditu, eta, batez ere, larreak okupatu eta haranaren abeltzaintza-ahalmena eta unitate arkitektonikoa murriztu ditu.

1.7.3 Haran-hondoa eta behe-kotak

Haran-hondora iritsi gara dagoeneko, aldaketa gehien jasaten dituen paisaiara, dudarik gabe; joera nagusia **hiri jarraituak** eraikitzea da, **sakabanatuta**, **orokorrean**, elementu hauekin: industrialdeak, etxebizitza atxikiak, zuzkidurak, etxebizitza kolektiboko blokeak, bideak, etab. Eta hori guztia zabaltzen doa, larreak eta baratzeak okupatuz; gutxi kontrolatutako prozesua da, eta zentzurik gabekoa, hainbatetan. Aurrerantz zabaltzen doa gainera, nahiz eta haranean etxebizitza ugari hutsik dauden; industria hutsak... Agian harrobiek eta zabortegiek egiten diote kalterik handiena paisaiari, azpiegiturak ahaztu gabe.

Zoritxarrez, badirudi prozesu honek ez duela mugarik, ezta baretzeko asmorik ere. Haran-hondoko paisaia honek larreak, nekazaritza-ustiapenak, presak, ubideak, eta errotak galdu ditu. Hori dela eta, ibaia gero eta ezkutatuago dago, eta erriberako hesi eta baso gutxiago ditu, eta betegarri gehiago, urez bete daitezkeen kotak saihesteko. Gainera, kontsumoaren eta araztegien ondorioz, emariak txikiagoakoak dira kota behetan, urbanizatuagoa dagoen, eta, horrenbestez, askatasun gutxiagoko eta eraldatze-, ijezketa-, eta eragin-ahaldimen txikiagoa duen haranean.

1.7.4 DPSIR azterketa

Sarrera honen atzetik datoz DPSIR azterketa-taulak, eta aktore-, presio-, efektu-, eragin- eta erantzun-sekuentziak.

Paisaiaren Katalogoa
 Catálogo de Paisaje

Balmaseda - Zalla

AKTOREAK	PRESIOAK	EFEKTUAK	INPAKTUAK	ERANTZUNAK
Baso-sektorea (publikoa)	Pinu-sail berriak	Baso-azalera areagotzea eta larreak galtzea	Mantentze-basoak (tokiko basoa areagotzea) Ekoizpen-basoak (basoberritzeak)	Basoen gehienezko okupazioa edo portzentaje bat aditzera ematea. Larre-mugak adieraztea eta tokiko basoak eta hedapen-areak seinatzea.
Baso-sektorea (pribatua)	Pinu-eukalipto plantazio berriak	Baso-azalera areagotzea eta larreak galtzea	Berreskuratzeko zaila den lursailaren osaera kimikoa aldatzea	Eukalipto-landaketak edo landaketa-azaleraren gehienezko portzentajea debekatzea
Nekazaritza-sektorea	Txakolin-plantazio berriak	Mahasti-azalera areagotzea eta larreak galtzea	Paisaia-aniztasun handiagoa eta upeltegiak eraikitzea	Larreak babestea Upeltegiak kokatzea birgaitu beharreko eraikinetan
Nekazaritza-sektorea	Hiri-presioa	Baratzeak eta larreak galtzea	Lehen-sektorea desagertzea herriguneen ingurunean	Lurzoruak eta lehengo baratzeak defendatzea ibaiaren eta herriguneen ingurunean. Plangintza aurreikustea eta defendatzea
Abeltzaintza-sektorea	Ustiapenak abandonatzea	Larreak galtzea	Eraikinak abandonatzea Paisaia tradizionala galtzea	Abeltzaintza-lurzoruak defendatzea baso-, nekazaritza- edo hiri-presioaren aurrean.
Industria	Industrialde berriak sortzea	Lurzoria artifizial bihurtzea Erriberako zonak okupatzea Topografia aldatzea (ibarrak betetzea) Bide berriak agertzea eta trafikoa areagotzea Hiri jarraituak eratzea Lehen-sektoreko erabilerak ezabatzea	Etorkizuneko Gueñesko industrialdea	Nekazaritza-etxeak saihestea, edo, hala badagokio, ibai-ertzetik babestea, eta geometria argia eta erregularra jarraitzea.
			Zallako industrialdea mendebaldea-iparraldea	Saihestea
			Etorkizuneko Balmaseda industrialdea	Ibai-meandrea ez okupatzea, eta muinoetara ez igotzea
Industria	industrialdeak lohiz betetzea	Industria-lurzoria aurreztea Ingurunea berrantolatzea eta hobetzea	Sodupe industrialdea. Erdi-abandonatuta	Balioan jartzea
			Gordexolako industrialdea	Haren ingurunea hobetzea, errepiderantz eta ibairantz
			Gueñesko industrialdea	Mantentzea eta balioan jartzea
			Zallako industrialdea	Mantentzea eta balioan jartzea
			Zallako industrialdea mendebaldea-hegoaldea	Osatzea
			Sopuertako industrialdea	Osatzea eta berrantolatzea
			Galdames industrialdea	Ertzak zaintzea
			Turtzioz industrialdea	Ezpondak konpontzea eta okupatzea
Balmaseda industrialde berria	Ertzak hobetzea			
Industria	Industrialdeak abandonatzea (industria-hondakinak)	Itxura txarra Alferrik galdutako azpiegitura	Balmasedako industrialde zaharra	Ez bihurtzea bizitoki. Mantentzea eta balioan jartzea
Industria	Industria-lurzoruak bizitoki-lurzoru gisa kalifikatzea	Hiri-disfuntzioak	Karrantzako industrialdea	Mantentzea
Urbanizazioa	Ingurune larreak eta hegalak okupatzea Herriguneak eta haran-hondoa Etxebizitza kolektibo motak	Hiri jarraituak Trantsizioko paisaia suntsitzea Paisaia naturala suntsitzea Oztopo bisualak Argi-kutsadura Instalazioak Ur- eta energia-konsumoa Herriguneetako siluetak suntsitzea Ondarea galtzea	Nekazaritza-lurzoria galtzea Abeltzaintza-lurzoria galtzea Ondarea galtzea Oztopo bisualak Lurzoruaren iragazkortasuna galtzea Argi-kutsadura Kutsadura	Herriguneen hedadura mugatzea Espazio hutsen birgaitzea eta aprobetxamendua sustatzea Ondarea babestea Larreak eta laborantzak babestea Etxebizitza kolektibo motak mugatzea
Eraikuntza Etxebizitza kolektiboa	Zabaltze berriak	Eskala eta tipologia kanpotarra galtzea	Gordexola: Sansamendi area. Santa Isabel komentua	Hedadura saihestea eta berriro urbanizatzea eta zuhaitzak aldatzea
			Isolatzea	Berritzea edo aldatzea
			Landa-ingurumena aldatzea	Fatxadak berritzea, berriro urbanizatzea eta zuhaitzak aldatzea
			Giro tradizionala haustea	Ondarea birgaitzea eta etorkizuneko ordezkatzea
			Gehiegizko dentsitatea, autokiarekiko gertutasuna eta isolamendua	Herrigunearen alboan ez dauden garapenak saihestea
			Isolatzea eta sakabanatzea	Herrigunearen alboan ez dauden garapenak saihestea
			Hiri-eszenatikirik ez izatea eta isolatzea	Berrantolatzea, hiri-inguruneak sortzea edo haiek ordezkatzea
			Muga logikoak haustea Errebal-izaera	Ibaiaren beste aldera ez zabaltzea, urbanizatzea eta zuhaitzak aldatzea

AKTOREAK	PRESIOAK	EFEKTUAK	INPAKTUAK	ERANTZUNAK	
		Hiri-kalitaterik ez izatea	Balmaseda: mendebaldeko auzoa	Berriro urbanizatzea eta zuhaitzak aldatzea	
		Herrigunearen izaera aldatzea	Sopuerta: bloke berriak ibaiaren iparraldean eta hegoaldean	Ibaiari balioa ematea, berriro urbanizatzea eta zuhaitzak aldatzea	
		Tipologia eta urbanizazio desegokiak	Concha: bloke berriak errepidearen alboan	Berriro urbanizatzea, zuhaitzak aldatzea eta ibai-erriberak berreskuratzea	
		Tipologia eta urbanizazio desegokiak	Ambasaguas: herriguneko blokeak	Berriro urbanizatzea eta zuhaitzak aldatzea	
		Tipologia desegokia	Lanestosa: herriguneko blokeak	Berriro urbanizatzea eta zuhaitzak aldatzea	
Eraikuntza Banako etxebizitza	Urbanizazio berriak	Nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoru okupatzea Urbanizazioaren eta zerbitzuen mantentze-kostuak Herriguneeen eta hiriguneeen gehiegizko hedadura	Gordexolako etxebizitzak. Larreen gehiegizko okupazioa	Larreak babestea eta ibaiari jarraipena ematea	Tipologia tradizionala errespetatzea Landa-urbanizazioa mantentzea Herrigunearen ingurunean kokatzea Jarduera isolatuak eta garapen linealak saihestea Tipologiak sustatzea TURTZIARRA: Turtzioz, Karrantza, Artzetales, Lanestosa, Sopuerta, Galdames KANTABRIARRA: Lanestosa, Karrantza, Artzetales EUSKAL BASERRIA: Gordexola, Kadagua, Galdames, Otxaran, Artzetales ETXE GAZTELAUA: Haran guztiak
			Gordexola multzo isolatu urbanizagarria	Herrigunearrekin zerikusirik ez duten atxikitako multzo isolatuak saihestea	
			Sodupeko etxebizitzak Indianoen etxeak, lorategiarekin	Ondarea babestea, indianoen etxeak lorategiarekin, Sodupen	
			Gueñes	Herrigunearrekin zerikusirik ez duten azalera handiak ez okupatzea. Errepidean zehar saihestea	
			Zalla	Hegoaldeko gunek eta Zalla ez lotzea Lehendik dauden herriguneei egokitzea	
			Otxaran	Errepide osoan hiri jarraituak ez egitea	
			Turtzioz	Emakida-areen urbanizazioa hobetzea	
			Karrantza	Landa-nukleo mugak murriztea	
Artzetales	Landa-nukleo mugak murriztea				
Energia-azpiegiturak	Lehendik dauden lineak	Paisaiaren aldaketa bisuala Zatitzea Suebakia	Gordexolako mendebaldeko linea Gordexolako ekialdeko linea	Linea bakarrean biltzea (ekialdean)	
			Zaldu linea	Gordexolako ekialdeko linean biltzea	
			Zaldu Ziribai linea	Haranetik mendebaldeko hegoaldeko eramatea	
			Balmaseda-Gueñes-Quadra-Lakabex linea		
			Lanestosa-Quadra-Lakabex hegoaldeko linea Karrantza-Quadra-Lakabex hegoaldeko linea	Iparraldeko linean biltzea (Balmaseda-Gueñes-Quadra-Lakabex)	
			Kadaguako hegoaldeko 1 linea Kadaguako hegoaldeko 2 linea	Hegoaldeko 2 lineak batzea	
			Balmaseda-La Herrera iparraldeko linea konektatzea	Linea eramatea, haizpitarte salbu utziz	
			Crucero-Sopuerta-Ahedo-Herrera linea	Ahedo-La Herrera azkeneko tartea kentzea, eta iparraldeko linearekin konektatzea	
			Quadra-Lakabex-Galdames linea	Desmuntatzea. Muskiz ezkerreko linea berrira pasatzea	
			Karrantza-Artzetales-Zalla linea Lanestosa-Karrantza-Artzetales-Zalla linea	Ahedotik Balmaseda iparraldearekin elkartzea. Lanestosa eta Karrantza linea bakarrean biltzea. Kentzeko aukera.	
Quadra-Lakabex transformazio-zentroa	Ezkerreko areara aldatzea, Kadaguako haizpitartearen amaieran				
Telekomunikazioak	Antenak Etxolak Pistak	Irudia aldatzea	Peña del Moro (Karrantza)	Antenak eta lineak mugatzea	
			Garbea (Balmaseda)	Antenak biltzea	
			Zipar (Zalla)	Interesezko zonetan antenak kentzea	
Meatze-ustiapenak (harrobiak)		Paisaiaren morfologia aldatzea	Paisaia-balio handiko areak suntsitzea Trafiko arriskutsua Hauts- eta zarata-kutsadura Eskualdeari ospea kentzea	Hedadura mugatzea Harrobiak ixtea Berreskuratzea eta zaborteia eraldatzea	
Turismoa	Jarduerak ezartzea lurzoru urbanizazionean	Nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoru okupatzea Trafikoa areagotzea Higiezinak berreskuratzea	Kanpinak eta aparkalekuak Sarrera eta instalazio berriak	Ondarea birgaitzeari lehentasuna ematea	

1.8 Paisaiaren bilakaera, gaur egungo joera sozioekonomikoen eta ingurumeneko joeren arabera.

Gaur egungo paisaia-bilakaera aztertuko dugu, oinarri hartuta areako erabilera garrantzitsuenak. Tokiko baso preziatuenekin hasiko gara (pagadiak, hariztiak eta artadiak), eta baso-eremuekin, larreekin, nekazaritza zonekin eta hiri-eremuekin jarraituko dugu.

1.8.1 Tokiko basoak

Pagadiak

Pagadiak dagokienez, Armañongo pagadi handia Armañongo parke naturalean dago; beraz, uste dugu mantentzeaz aparte mehatxurik gabe garatuko dela.

Ordunteko mendilerroaren ipar-isurialdean dauden pagadi handiek babes berezia dute, Lurralde Plan Partzialean, eta baita Karrantzako plangintzan ere, azken horrek ekialdeko pagondoak eta hariztiak babesik gabe uzten baditu ere.

Calera ibai-gaineko pagadi zabala ere jasota dago Lurralde Plan Partzialean, baina ez babes-eremuan, eta udal plangintzak ere ez dio aipamenik egiten; horrenbestez, basoberritzeen kalteak jasan ditzakete.

Beste pagadi- eta harizti-area bat Ordunteko ekialdean dago, Koltzapean, Aguera ibaiaren sorburu batean, Artzentalesen dagoeneko. Lurralde Plan Partzialak area hori aipatzen du, baina ez du bere babes-eremuan sartzen; Artzentalesko plangintzak, bestalde, aipatu ere ez du egiten. Haren babesgabetasuna, hortaz, erabatekoa da, eskualdeko harizti handienetako bat eratzen badu ere, tamainagatik eta baliogatik.

Hariztiak

Hariztiei dagokienez, uste dugu mehatxua handiagoa dela, izan ere, kota baxuagoetan daude, larreen eta basoberritzeen mehatxuarekin. Armañongo harizti txikiak bakarrik daude babestuta; aipatu ditugun Aguera ibai-sorburuko hariztiak babesik gabe daude, eta plangintzak jaso ere ez ditu egiten.

Paisaia eratzen duten Karrantzako hariztiak babesik gabe daude, eta gaur egungo argazkiek erakusten digute lursailen kontzentrazioak haietako asko eta asko desagerrarazi zituela. Karrantza-Lanestosa banalerroan ere harizti txikietan geratzen ziren zuhaitzi guztiak desagerrarazten ari dira, alturako abeltzaintza-ustiapenaren ondorioz.

Escritako Mendatean dago beste harizti handi bat, inolako plangintzetan ez badator ere; baso-ustiapenez inguratuta dago, eta, beraz, instantzia batetik babesten ez bada, galtzeko arriskua dago.

Balmasedako Koltza eta Acebo haraneko harizti handiak jasota daude ingurumena hobetzeko udal-plangintzan. Era berean, Rebollar hegoaldeko hariztiak ere jasotzen ditu, plangintzak moztu egiten baditu ere, lurzoru industrialetan erabiltzeko. Eraso horrek hariztiak desagerraraz ditzake, eta Kadaguan dauden azkenak dira.

Turtzioz ipar-ekialdeko hariztiei babes-berezia dute beren plangintzan. Ez ordea Artzentalesko hariztiei, eta unada txikietan sakabanatuta daude, larreen artean. Deigarria da Gorgolas hegoaldeko harizti handia ahaztu izana, lehen aipatu dugun Aguera ibaiaren sorburuan.

Sopuertan dagoeneko, Alen eta Villar tontorretatik Koltzarekin Mercadillora jaisten diren hariztien eta artadien izugarriko balioa aipatu behar dugu. Lurralde Plan Partzialak bakarrik aipatzen ditu intereseko zona moduan; dena den, basoberritzeek inguratuta daudenez, etorkizunean desagertuko direla uste dugu, eskualdeko area handiena eratzen badute ere, luzerari dagokionez.

Badira zenbait harizti inolako plangintzetan babestu eta aipatu ere egiten ez direnak; adibidez: Galdamesko harizti zoragarriak, Cruz mendilerroaren iparraldean; Loitzagakoak; Barbadun aldera ageri direnak; Peña del Moro haitzekoak; eta Larrea eta Bentako banalerrokoak.

Lurralde Plan Partzialak Trianoko mendietako harizti batzuk babestutako eremu natural gisa biltzen ditu, eta espazio libre moduan, berriz, beste batzuk. Aitzitik, aipatu gabe uzten ditu beste hauek: Trianoko hego-hegaleko hariztiak, Barbadun haizpitartekoak, Montellanokoak, Regato aldera begira daudenak Zaramillon, eta mendatekoak, Kadagua aldera. Argi dago, hortaz, helburua ez dela horiek babestea izan, beste elementu batzuk baizik: tontorrak, meatze zaharrak, etab.

Zalla-Gueñes arean, Lurralde Plan Partzialak ez du hariztiak babesteko aipamenik egiten, ezta plangintzak ere; harizti handiak geratzen dira ordea basoberritzeen artean, larreak eta herrixkak dauden hego-hegal guztietan. Arriskuan daude, hortaz. Basoberritzeek ere kalteak jasan dituzte, azkeneko suteen ondorioz.

Ganekogortatik jaisten diren hariztiak ez dute Lurralde Plan Partzialaren ezta plangintzaren babesik ere, azken horrek babes-eremu berezi bat aipatzen badu ere, parte batean haietara iristen den kota topografiko bati jarraiki.

Gordexolan apenas geratzen dira hariztiak, Lurralde Plan Partzialak eta plangintzak ez dituzte aipatzen, behinik behin. Hala eta guztiz ere, larre eta herrixka zaharren inguruan eta barne-erreketan arrastoak geratzen dira, pinudiak erabateko nagusitasuna badu ere.

Zaldun, aipatzekoa da Burleta erreka igarotzen duen baso ederra, pagadiak ere badituen; plangintzak tontorrentzako gordetako babes bereziaren parte batek bakarrik eragiten dio.

Artadiak

Eskualdeko artadiak babes handiagoa jaso dute. Horrela, Fuenfriaren oinean daudenak Armañongo parke naturalean jasota geratu dira, baita Raneron daudenak ere. Dena dela, babesik gabe geratu dira Raneroren parean daudenak, Cadenan, eta Lurralde Plan Partzialaren arabera interesekoak dira horiek. Lanestosakoak ere Lurralde Plan Partzialaren arabera berreskuratu beharrekoak dira, eta horiek ere ez dute babesik. Babesik eta aipatu gabe geratu dira Aldeacuevakoak, Karrantzan, eta harritzekoa da Gordon azpiko artadi handiaren babesgabetasuna. Turtzioz iparraldeko artadi handia Armañongo parke naturalak babestuta dago.

Sopuertan, artadiak geratzen dira tontorretan, Koltza ibaiarekin doazenak, Lurralde Plan Partzialaren arabera intereseko areak; gauza bera gertatzen da Galdamesen, San Pedroko artadi handia intereseko zona moduan jasota baitago Lurralde Plan Partzialean; ez ordea errepidea inguratzen duten artadiak, ezta Loitzagan daudenak ere, balio izugarria badute ere Sol haitzetik jaisten diren hariztiekin batera.

Kadaguako Haranean Herrera haizpitarteko artadiak geratzen dira, izen bereko tontorrean, inolako babesik gabe, eta Grazal errekaok, Lejartza eta Magdalenaren oinean, Kadagua eta Barbadun lotzen zituen Jorgirako bide zahar batean.

Amaitzeko, artadiak ez dute inolako babes-motarik Cuadran, Ganekogortatik jaisten den haran ezkutu eta baliotsu horretan.

1.8.2 Baso-guneak

Zalantzarik gabe, eskualdeko baso-protagonistarik handiena pinudia da. Izan ere, eskualdeko azaleraren zati handi bat hartzen du, erabileren araberrako portzentaje-grafikoetan ikusiko dugunez. Aitzitik, altzariaren industria kalitate handikoa izan arren eta bere garaian esfortzu handia egin bazen ere, desagertu egin da, eta egurrak gaur egun duen prezio baxua ikusita, parte handi bat su egiteko eta energia ekoizteko erabiltzen da. Nolabaiteko porrota da horrenbesteko balioa duten zaindutako baso horiek erregai gisa erabiltzea.

1.8.3 Larreak

Antzina, pinudiek goi-txilardiak eta larreak okupatu zituzten, baina eskualdeko iparraldean larre ugari mantendu ziren; bestalde, esnearen gaur egungo prezio baxuak bide eman dio haragi-ustiapenari, eta, abeltzainek diotenez, hurrengo urratsa pinudiak landatzea izango da; badirudi,

hortaz, etorkizunean larreek aurrera egingo dutela Karrantzan, Artzentalesen, Sopuertan, Galdamesen eta Saltzedon. Izan ere, Balmasedan eta Gordexolan larre gutxi geratzen da dagoeneko.

Dena dela, badirudi gaur egungo krisi-egoera dela eta gazteek abeltzaintza-ustiapenari ekingo diotela berriro ere, Karrantzan gertatu den bezala, eta espero dugu horrela izatea. Izan ere, pinudiak aurrera egiten badu, despopulatzeak emango dira, baserriak eta herrixkak abandonatuta geratuko dira eta paisaiari horrenbestereinoko balioa eman zion landa-zibilizazioa desagertuko da.

Pinudien bilakaerak **larreen** paisaiari eragiten dio. Gordexolan eta Zaldun, esaterako, oso larre gutxi geratzen dira baserriei eta herrixkei atxikita, pinudiek isolatuta utzi baituzte dagoeneko. Gueñesen eta Zallan, berriz, oraindik ere erdi-hegaleko larreak geratzen dira herrixkei lotuta, batez ere hego-hegaletan. Eskualdearen iparraldean larreak daude oraindik, Galdamesen, Larrean eta San Esteban inguruan, eta Sopuertan, berriz, haran-hondoetan geratzen dira, baina oso mehatxatuta.

Larreek Artzentalesko paisaia eratzen dute, eta baita Bezi, Urrestieta eta Otxaran gunea ere, baina ustiapen txikiak dira, eta parte batean mehatxatuta daude, urbanizazioaren inbasioagatik. Gainera, abeltzainak edadetuak dira. Artzentalesen alturako bazkak daude oraindik ere, Kolitzaren oinean, Gorgolasen, eta baita iparraldean ere, Santa Cruzen.

Karrantzako larreak eta abeltzaintza-ustiapenak indartsuak eta dinamikoak dira oraindik ere; bertan, lursail-kontzentrazioak goiko zonak okupatzen dituzten abeltzaintza estentsibo handiak sustatu zituen. Herrixken inguruko larre txikiak urbanizazioaren mehatxua jasaten dute, plangintza neurrigabeen ondorioz. Izan ere, parte batean larre onenak okupatzen dituzte hainbatetan herrixketan biltzen diren landa-nukleo izugarriekin. Hori dela eta, eskualdeko larreen etorkizuna Karrantzan dagoela aurreikusi genezake, bertako bi kooperatibei esker. Dena den, esnearen prezio baxuak bide eman die haragitarako behi-aziendei edo gaztetarako ardi-aziendei, eskualdeko ardi-tradizio zaharrak berreskuratuz. Zoritxarrez, agente guztiek auresaten dute jarduera mantendu ezean larreak desagertuko direla eta pinudiek aurrera egingo dutela, eta, horrenbestez, azkeneko abeltzaintza-ustiapenak desagertuko direla eta herrixketako batzuk hutsik gera daitezkeela.

Ikus dezakegunez, nekazaritzako politika argirik ez dagoenez, pinudiek giza-jarduera ordezkatuko dute, paisaian.

Agian, larreen paisaiaren barruan alturako-bazkak, erdi-hegaleko larreak eta ibarretako larreak bereizi beharko genituzke; baina nahiagoa izan dugu azken horiek hiri- eta industria-garapenari buruzko azken analisirako uztea.

1.8.4 Nekazaritza

Harritzekoa bada ere, duela bi mende nekazaritza zen, abeltzaintzarekin batera, eskualdeko errekurtsu garrantzitsuenetako bat; galsoroak baziren, dena den, eta irin-tradizioa ere bazegoen, hortik datorkie Gordexolari eta eskualdeko beste udalerrri batzuei pastelgile ospea. Gaur egun, nekazaritza desagertu da dagoeneko, baratze eta laborantza txikiak izan ezik. Aitzitik, azken urteetan txakolinak gorantz egin du, eta lurzoru berriak balioan jarri ditu, abeltzaintzarako larre zaharren ginetik. Prozesua ez da beste eskualdeetako bezalakoa; baina uste dugu aurrera egin dezakeela etorkizunean, eta bilakaera ongi etorria izango da. Izan ere, pertsonak erakartzen ditu, nortasuna ematen du, upeltegiak eta lana sortzen ditu eta lehengo tradizioa berreskuratzen du. Hala ere, ona izango litzateke jarduera hark pinudiek hartutako larre zaharrak okupatuko balitu, larreak are gehiago murriztu beharrean. Horrela, ez luke abeltzaintzarako gaitasuna murriztuko, nekazaritza-sektore berria emango luke eta.

1.8.5 Hiri-eremuak

Eskualdean, hiru zibilizazio daudela esan ditzakegu. Lehenik, **basokoa** dugu, herrixketako nekazaritzaren eta abeltzaintzaren osagarriak ziren ehizarako eta egurretarako tokiko basoetatik mundu arrotz, boteretsu eta baztertzaile batera eboluzionatu duena, goi-magaletako baserrietako eta herrixketako bizitzarekin amaituz. Bigarrenez, **nekazaritza-abeltzaintzari** lotutako mundua aurki dezakegu, azken aldian abeltzaintza bakarrik, herrixkak nekez bizirik mantendu zituena. Amaitzeko, gune **hiritarra eta industrial**a daukagu, Balmaseda eta Lanestosa bezalako merkataritza-herriekin

jaiotakoa, nobleen landa-etxeekin kontrajartzen zirenak, baina arrakasta handia izan dutenak. Horiek guztiak aintzat hartzen hartzen baditugu, ohartuko gara hiri-zibilizazioa hasiera batean herrixken eta ibar-ustiapenen —euren larreekin eta baratzeekin— osagarria izan zela. Haatik, pixkanaka-pixkanaka, industriaren agerpenarekin, lehenengo, eta gehiegizko urbanizazioarekin, gero, baztertzaila izatera eta ibar guztiak okupatzera igaro da, eta haietan zegoen abeltzaintza- edo nekazaritza-jarduera desagertu da.

Horrela, batik bat Karrantza, Sopuerta eta Gordexola ibarretan, eta Kadaguako haranean, industria-enpresak ibarretik hedatzen ikusiko ditugu, baita auzo eta urbanizazio berriak eta zerbitzuetako instalazioak, eta horrek Sodupetik Balmasedaraino doazen hiri jarraituak eraikitzeo arriskua dakar.

Hori izango litzateke eskualdeko arazorik garrantzitsuenetako bat; izan ere, hiri-okupazioa modu kaotikoan ematen bada, neurririk gabe, eta tipologia arraroekin, eskualdea degradatuko litzateke, eta haren irudia kaltetu.

Badakigu urbanizazioa eta eraikuntza eragile ekonomiko garrantzitsuak izan direla; baina biztanleria hazten ez bada —etxebizitza hutsak, nabeak, eraikinak eta abandonatutako baserriak dira horren erakusgai—, urbanizatzen jarraitzeak ez du zentzurik. Plangintzan aurreikusitako hiri-lurzoru urbanizagarria gaur egungo lurzoru urbanizatuaren hirukoitza da, eta eremu hauek hartzen ditu: Sodupeko ibarrak; Sodupe eta Gueñes arteko larreak; Gueñes eta Aranguren herrien arteko espazioa; ia Zallako ibar guztia; eta Kadaguako azken lautadak, Gaztelako mugan. Gainera, Gordexolako ibarraren parte handi bat okupatu zuen. Sopuertan, ia hiru herriguneak elkartuko dira etorkizunean, hiri jarraituak eratuz, eta Karrantzan, Ambasaguas eta Concha elkartuko dira, haran osoa okupatuz.

Hazkunde horrek ondorio ugari dakartza: larreak okupatzea; jarduerak kanporatzea; herrixkak hustea; herriguneak luzatzea; nekazaritza-lurzorua okupatzea; eta espazioa, ura eta energia kontsumitzea. Nahaste hori da, hain zuzen ere, eskualdeari irudi txarra ematen diona. Gainera, harrigarriena da **bizitokirako** urbanizazioa dela, eta ez hori bakarrik, baizik eta logikoa den bezala herriguneetatik gertu dagoen industria-lurzorua urrutirago eramaten duela, eta haraino iristeko garraio pribatua behar dela.

Hasierako **industria-lurzoruak** —Zallako eta Balmasedako lantegiak, Zaramilloko lantegia, Quadra-Lakabexko lantegi elektrikoa, La Herrerako berun-lantegia, Peñuecoko ehun-lantegia, Ambasaguasko lantegia, eta Sopuertako eta Galdamesko meatze-ustiapen zaharrak— bide eman zien abandonatutako meatze-lurzoruei, eta lantegi askoren itxierari. Beste batzuetan, aldiz, enpresa berriak eraiki zituzten alboan, esaterako: Gueñesko ibaian zehar, paper-fabrikaren atzean eta ibaiaren bestaldean, eta Balmasedan eta Karrantzan, Concha eta Ambasaguas artean. Aldi berean, altzariaren industriak tailer txikiak ezarri zituen Balmaseda iparraldeko inguruetan, eta nabe-biltegiak, Quadra-Lakabexen eta Gueñesen.

Lurzoru horiek guztiak larreak eta ibarrak hartu zituzten. Okupazioa ez zen gehiegizkoa izan; baina lurzoru isolatuak hartu zituzten hainbatetan, eta, horren ondorioz, herriguneek trinkotasuna galdu zuten.

Lurzoru edo nabe horietako asko hutsik zeuden arren, industrialde berriak egin dituzte Gordexolan, larreak okupatuz, haranaren irudia aldatuz eta ibai-ertzak abandonatuz. Halaber, ezkutuagoa badago ere, Balmasedan industrialdea egin zuten (inguruak oso narriatuta daude). Aldi berean, Turtziozen egindako industrialdeak mendi-magal guztia suntsitu zuen, eta gaur egun ia hutsik dago. Horrek Turtziozko Haranaren orografia osoari eragin zion. Horrekin batera, Zallako industrialdea egin zuten. Industrialdeak ibarra okupatzen du, eta herrigunetik urrunegi dago oinez iritsi ahal izateko. Gainera, ibaia eraikin jarraituekin inguratzea aurreikusi dute, iparraldeko magaletan gora eraikinak eginez.

Halaber, Balmasedan industrialde berria egitea aurreikusita dago, Burgosekin mugan dagoen gunean. Industrialde horrek ibar guztiak okupatzen ditu, eta mendira igotzen da, Kadagua inguratzen zuten harizti bakarrak moztuz. Magalean burutu beharreko esku-hartze horrek inguruak narriatuko ditu, eta hori izango da Gaztelatik datorren bidaiari orok haranari hartzen dioten itxura. Bitartean,

Balmasedako industria-lurzoru tradizionala eta haren hedapena bizitokirako zonatzat aitortuko da, eta auzo berria eraikiko da, ibaiaren bestaldean.

Sopuertan ere industria-lurzorua herriguneetatik aldentuko da, Sopuertak definitu zuen lautada handiaren aldamenean; lurzoru birjina okupatzen du, eta haranean libre geratzen zen larre-espazio bakarra mugatzen du bere sarbideekin; badirudi herrigune batek ere ezin zituela hiru nabe babestu, bizitoki-hedapenean, norabide guztietan.

Industrialde horiei beste bat gehitu zaie, aurreikusitakorik handiena, Kadaguako haranean libre geratzen ziren ibarrak okupatuko dituen, Sodupe eta Gueñes artean. Bertan daude Santxosolo herrigune baliotsua, bi dorretxe eta Erdi Aroko zubia. 1,5 kilometroko luzera du, ia hutsik badaude ere Gordexolako, Sopuertako eta Turtziozko industrialdeak.

1.8.6 Ondorioa

Tokiko landarediaren laburpenak erakusten digu eremu ahula dela, eta harrizkoa da babes bakarra Armañongo parke naturalak izatea, horren eremu baliotsua eta estrategikoa izanik. Ez dakigu etorkizunean zer gertatuko den harizti-unada zenbakaitzekin eta babesik ez duten artadi txikiekin.

Bestalde, paisaiaren etorkizuna mehatxupean dago, larreak abandonatu eta pinudiek aurrera egin dezaketelako. Horrek ekar lezake eskualdeko giza jarduera desagertzea eta herrixkak hutsik geratzea. Neurrigabeko urbanizazioak, bestalde, lo-hiri bihurtu du. Ez da paisaiatik bizi, eta bertan ez da jarduerarik burutzen, eszenatoki bat baino ez da.

Industria-eremuek ere paisaian integratzeko erronkari aurre egin behar diote, oso gune kritikoetan baitaude.

1.9 Mehatxuak eta aukerak

Hona hemen Area Funtzionalean antzemandako mehatxu eta aukera nagusien deskribapena. Paisaiaren optikatik egindako diagnostikoa da; hori dela eta, zenbait gai aipatu gabe geratu dira.

1.9.1 Mehatxuak

Kultur ondarea galtzea

Area Funtzional osoan mantentzea merezi duen kultur ondarea dago: arkitektonikoa (dorretxeak, jauregiak, indianoen etxeak...), industrialak (errotak, burdinolak, meatze-azpiegiturek...), arkeologikoa (trikuharriak, tumuluak...) erlijiosoak (ermitak, elizak...). Horietako batzuk mantentze-egoera onean dauden arren, aipatu behar da gehiago direla abandonatuta daudenak, eta haien biziraupena arriskuan dagoela.

Ondarea paisaiaren parte dela uste dugu, maiz lurraldeko aztarna historikoaren ikonoak baitira.

Tipologia tradizionalak desagertzea

Aurreko mehatxuari dagokionez, aipatu behar da Area Funtzionalak paisaiari lotutako tipologia arkitektonikoak dituela, eta herriguneen jatorri izan direla. Landa-nukleoiei buruz ari gara funtsean, nahiz eta gune hiritarragoak ere aipa daitezkeen, hala nola Lanestosa, Turtzioz eta Balmaseda.

Agian tipologiarik bereizgarrienak dorretxeak, indianoen etxeak, baserriak eta etxe turtziarra dira. Tipologia horiek paisaian errotuta daude, hiri-eszenari irudi bereizgarria eman eta etxebizitzaren eta haren ingurunearen arteko harremana ulertzeko modu bat baitira, lorategiak, larreak, kaleak, plazak, etab. osatzen dituzten heinean.

Arkitektura mota horrek duen birgaitze-falta da jasaten duen mehatxurik handiena, zailagoa baita hura mantentzean tipologia herrikoia baino. Era berean, tipologia berrien beharra ere kontuan izan behar da, eta batik bat etxebizitza kolektiboarena, herriguneen silueta aldatu edo paisaian disfuntzioak eragiten baititu, eraikinaren inguruko bolumetria eta eremu publikoak eraldatuz.

Hiri jarraituak sortzea

Memoria osoan askotan aipatu dugun arazoa da. Hiri-hazkundeak hiri jarraituak ekar ditzake, naturaz inguratutako hirigune isolatuetan, paisaiaren ulermena aldatuz.

Aitzitik, zenbaitetan, Kadagua ibaiertzeko guneak kasu, egoera hori ematen da dagoeneko. Plangintzaren analisiak hiri jarrai horien osaerari buruz ohartarazten digu, mendebaldeko zonetan bereziki kezkarria izango litzatekeena. Karrantzako kasua oso adibide argia da. Izan ere, gune isolatu multzo batek eratzten du harana, baina aurreikusitako landa-nukleo handiek (etxebizitza kopuru mugatua badute ere, araudiari jarraiki) eraikuntzen sakabanatzea eta entitate horien trinkotasun-galtzea eragin dezakete.

Harrobiak eta zabortegeak

Lehen esan bezala, harrobiek kasua izan liteke paisaiaren erasorik larriena, haren topografia modu itzulezinean aldatzen baitu.

Zabortegeak ere gogor eragiten diote paisaiari, tamaina handikoek batez ere. Era berean, ez ditugu ahaztu behar errepideen eta bideen alboko zabortege txikiak eta kontrolrik gabeko isurguneak.

Zaila da jarduera horiek eragindako inpaktuari irtenbidea ematea, eta zenbait faktore daude tartean; baina ezin dugu aipatu gabe utzi, paisaiaren mehatxu larrienetako bat baita.

Egur-industria desagertzea

Aranguren paper-fabrika edo altzari-industria izan da Kadaguako Haranaren eragile garrantzitsuenetako bat, eskualde osoko baso-jarduera sustatu baitu. Ondorioz, paisaia pinudiz josi da, hegaletan eta tontorretan, bereziki, Kadagua eta Herrerías haranetan.

Jarduera ekonomikoa eta lanpostuak galtzeaz gain, industria-mota honen gainbeherak galerak eragin ditu industrian (abandonatutako nabeak, irudi txarreko instalazioak, etab.). Baso-sektoreari dagokionez, aipatu ditugun haranetako paisaia eratzen dute zalantzarik gabe, eta agian gaur egungo beherakadak ez dio nabarmen eragiten baso-jarduerari. Aitzitik, epe luzean, mehatxu bat izan daiteke, baso-jarduerak bertan behera uzten badira, haranetako mendien paisaia aldatuko baita.

Laborantza eta nekazaritza-jarduera tradizionalak bertan behera uztea

Enkarterrietako aurreko deskribapenetan irakur dezakegunez, faktore hori eman da dagoeneko, neurri handi batean. Hala, Area Funtzionaleko erabilerak aztertzen baditugu, lurzorua gehiengo larretarako, bazketarako eta baso-eremuetarako erabiltzen da. Zenbait laborantza galdu dira: zereala, mahastia (azken aldi berririo agertu bada ere), fruta-arbolak, etab. Abeltzaintza-aziendaren kasuan ere gauza bera gertatu da. Gaur egun, haragitarako behi-azienda ematen da, orohar, eta gero eta esne-ustiapen gehiago ixten doaz, errentagarritasun ekonomikoa falta delako.

Paisaiari dagokionez, egoera kezagarria izan daiteke, mendebaldeko haranetan bereziki (hots, Karrantza eta Artzentales, eta, neurri txikiago batean, Sopuerta eta Galdames), larreak eta bazkak abandonatzea ekarriko baitu horrek, eta, ondorioz, arean hain bereizgarria den landazabaleko paisaia aldatuko da.

Dibertsifikaziorik eza baso-jardueretan

Mendi gehienak baso-jarduerarako erabiltzen dira, bazka menditarrak eta tokiko basoak izan ezik. Esan bezala, Kadagua eta Herrerías haranak pinudiz josita daude. Horrenbestez, haranetako paisaia ia alpetarra da, eta urte osoan kolore berdea mantentzen du.

Hala ere, aurreko mehatxuari lotuta ikus dezakegunez, larreak eta nekazaritza-jarduerak abandonatu ostean baso-espezieak agertu dira laborantzen orde, historian zehar. Aurreko mehatxuan agerian utzi bezala, egoera bera eman daiteke mendebaldeko haranetan, nekazaritza-jarduerak bertan behera uzten badira. Paisaiaren optikatik, uste dugu ez litzatekeela ona izango, Area Funtzionaleko paisaia-aberastasunaren parte bat galduko litzatekeelako.

Azpiegitura berriak gainezka dauden eremuetan

Kadaguaren ardatza, Area Funtzionaleko zonarik populatuena eta trinkoena izateaz gain, Bilbo Hiriko ateetako bat da. Horrela, zenbait azpiegitura ezarri ditu Kadaguako Haraneko biztanleei zein Bilbo Hiriko biztanleei zerbitzua emateko. Hala, Kadaguako korridoreko bide-azpiegitura, trenbidea, ubideak eta Gueñesko geltokira doazen argindar-lineak azpimarra ditzakegu.

Azpiegitura-ardatz honek biztanle ugari hornitzen dituenez, logikoa dirudi azpiegitura berriek lehendik dauden trazadurak aprobezka ditzatela. Mehatxu horri dagokionez, azpimarratu nahi dugu eman litezkeen azpiegitura berriak aztertzea beharrezkoa dela, arrazoi horren ondorioz dagoeneko degradatuta dagoen eremu batean daudelako.

1.9.2 Aukerak

Balioan jartzea eta ingurumena babestea

Paisaia-aniztasuna eta Area Funtzionaleko balio naturala Enkarterrietako aukera garrantzitsuenen artean daude. Armañongo Parke Naturala existitzen den arren, uste dugu heda daitekeela, edo parke gehiago sor daitezkeela (Orduntekoa, adibidez), hain baliotsua den ingurune naturalari balioa emateko.

Paisaia-balioei lotutako turismo-ustiapena

Aurreko aukerari dagokionez, aipatu behar da Enkarterriek publikoari zuzendutako erakargarritasun ugari dituela: parke naturala, kobazuloak, kultur ondarea, aisialdirako zonak, ibilbide luzeak eta bide berdeak. Uste dugu faktore oso garrantzitsua dela paisaia-balioen turismo-ustiapenerako. Gainera, aldi berean nekazaritza-jarduerekin lotzen badugu, bi jarduera ekonomikoen artean sinergia emango litzateke.

Kultur ondarea babestea, zaharberritzea, eta balioan jartzea

Turismo-ustiapenari dagokionez, aipatzekoa da baita ere Enkarterrietako kultur ondarea. Mehatxuetan adierazi bezala, ondarearen parte handi bat abandonatze-egoeran dago.

Uste dugu ondarea berreskuratzea eta haren inguruko ezagutza areagotzea beste aukera bat dela, turismo-jarduerari lagun diezaiokelako, herriguneeen irudia mantentzen eta hobetzen den heinean.

Kadagua ardatz egituratzailea

Kadagua ibaiak aldaketa asko jasan ditu historia osoan: errotak, burdinolak, industria... Egia da zenbait guneetan oso hondatuta dagoela, baina haraneko ardatz egituratzaile moduan berreskuratzea posible da. Ibaiaren ingurunean ardatz handi bat eratzea izango litzateke aukera, eta biztanleriarentzako erabilerekin. Horrela, hondatutako zonak hobetuko eta egoera onean daudenak mantenduko lirateke.

Industria-hondarrak eta hutsik dauden industria-lurzoruak berreskuratzea

Aurreko aukerari dagokionez, Area Funtzional osorako balio dezakeen arren, lehenago industrietan hartutako erabilerak berreskuratu behar dira. Horietako batzuk, gainera, urak har ditzakeen zonak daude, beraz, modu ezberdinetara berreskura daitezke: zenbaitetan, industria-erabilerak eman daitezke, berriro ere; beste batzuetan, aisialdiarekin zerikusia duten erabilerak emango dira, eta, hirugarrenik, bizitokirako erabiliko dira, biztanleak dituzten eremuetatik gertu egoteagatik.

Edonola ere, eremu horiek berreskuratzen badira, zonako irudiaren pertzepzioa nabarmen hobetuko da, Kadaguako Haranari dagokionez, bereziki.

Nekazaritza-jarduerak berreskuratzea

Lehen esan bezala, nekazaritza-jardueren berreskuratzeak pixkanaka galtzen joan den nekazaritza-aniztasun historikoa ekarriko du. Nekazaritza-jarduera horiek berreskuratzen badira, beste paisaia batzuk gal daitezke (larreak, adibidez), baina uste da paisaia-aniztasun hau onuragarria dela.

Nolabait ere, prozesu hau martxan da, txakolinaren laborantza-ustiapenak sartu direnetik; dena den, hasiberria da oraindik ere, eta Enkarterrietako paisaia behar bezala aldatzeko aukera gisa jo dezakegu.

Nekazaritza eta abeltzaintzako eraikinen, industrien eta azpiegituren integrazio bisuala

Mehatxuen atalean adierazi dugun bezala, paisaiak hainbat eraso jasan ditu, harrobiek, zabortegeien eta azpiegituren ondorioz, batez ere. Haiekin batera nekazaritzako eta abeltzaintzaiko eraikinak (baserriak, nekazaritzako pabiloiak, abeletxeak...) eta industria-eraikinak ditugu (industrialdeak, lantegi handiak...).

Landaredia ugariari eta natura lehengoratzeko ahalmenari elementuen diseinu zaindua gehitzen badiegu, paisaiari egindako zauriak integratzeko aukera izan dezakegu; eta baita eraso berriak eragin ditzaketan azpiegiturak, eraikuntzak edo jarduerak integratzeko ere.

1.10 Paisaiaren ebaluazioa

Enkarterrietako lurraldearen egoera udalerrri ezberdinen araberakoa da; batetik, ipar-mendebaldeko area guztiak (Lanestosa, Karrantza, Turtzioz eta Artzentales) abeltzaintza-, nekazaritza- eta baso-zibilizazioen erakargarritasun guztia mantentzen du; hortik abiatuta sortu ziren herrixkak, herriguneak, zuhaitz inguratutako landak eta larreak, eta oraindik ere pagondoak, hariztiak eta artadiak —pinudi-basoberritzeekin nahastuta— mantentzen dituzten mendi-hegalak.

Kareharrizko mendikateen erakargarritasunak —area babestuekin eta Armañongo parke naturalarekin— balio handiagoa ematen dio paisaiari.

Lurralde horiek salbuespen gisa jo ditzakegu, apenas jasan dute erasorik: Karrantzako harrobia; inpaktu txikiagoko kareharrizko harrobi batzuk, abandonatuta daudenak jadanik; meatze-ustiapenak, abandonatuta daudenak baita ere; argindar-lineak; eta, azken aldian, hiriburuetan oso egokiak ez diren hiri-garapenak.

Pinudien aurrerakadak, abeltzaintza-ustiapenen lursail-kontzentrazioak, eta familia bakarreko etxebizitzetarako larreen okupazioak bakarrik aldatu dute, neurri txikian bada ere, paisaia tradizionala.

Paisaia zaindua, maitatua, eta, batez ere, bizia da, eta bertan, lehenengo sektorea —oraindik ere bizirik dagoena— da paisaiaren protagonista, balioaren eta benetakotasunaren sentsazio hori eragiten duena.

Ipar-ekialdeko eskualdeak (Sopuerta eta Galdames) meatze-ustiapenak jasan zituen, eta horren ondotik paisaia-aldaketa bat etorri zen. Meatzeekin eta indusketekin batera trazadura berriak —trenbideak, bideak, pistak— eta herrixkak agertu ziren, eta zenbait herriguneetan garapen anarkiko bat eman zen.

Jarduera berriaren ondorioz, nekazaritzak eta abeltzaintzak garrantzia galdu zuten, eta arkitektura herrikoia parte bat abandonatuta utzi zen, ondare baliotsua arriskuan jarritz.

Gainera, pinudiak eta eukalipto-sailak landatu ziren hegoaldean.

Faktore horiek Sopuertari eragin zioten batez ere, eta haiekin batera hiri-garapena etorriko zen, Sopuertan oinarrituta, baita ere: etxebizitza kolektibo ezegokiak, herriguneen fusioa, topografiarekiko moldaketari destaina egitea.

Eskualdeko paisaiari eragiten dioten bi harrobi handi ditugu, hiru, Zaramillokoa aintzat hartzen badugu.

Baina eskualdeak balio izugarriak ditu: tontorrak, Alenetik Hartz Zurieta, Artega; tokiko basoak, Galdamesen eta Koltzaren haizpitarrean bereziki mantendu direnak; bizirik dauden abeltzaintza-areak; Koltza-Barbadun, Galdames Limon ibaia, kalitatezko urak dituen; erriberako basoak, burdinolak eta errotak, horietako batzuk zaharberriak.

Haren ondarea ere aipagarria da, pertsonalitate handiko herriguneekin: San Martin de Carral, Mercadillo, San Esteban, San Pedro; arkitektura herrikoa duten herrixkak eta balio izugarria duten dorretxeak. Agian beste area batzuetan baino zaintza handiagoak behar dituzte, mantendu eta birgaitu daitezten.

Meatze-ustiapen zaharrak eta sarbideak natura berreskuratzeko interesezko elementuak bihurtu dira: bide berdeak; hala, natura-, ibilbide- eta ondare-aniztasuna handiagoa da. Loitzagako dorretxea erakarpenera foku probetxugarria izan da, eta baita ere Traslaviñara zihoan meatze-trenbide zaharreko bide berdea; gauza bera gerta liteke elementu hauekin: erromatarren bidea, burdinolak, dorretxeak, kobazuloak, Peña del Moro gotorleku indoeuroparra, Ganeranekeko tumuluak. Faktore horiek guztiak balioan jartzea, Sopuertako hiria berrantolatzea eta harrobiak mugatzea hasiera bat izan daiteke, eskualdeko balioei eusteko.

Eskualdearen hegoaldean, pertsonalitate handiko bi haran lineal ditugu: Kadaguako Harana eta Gordexola; tradizionalagoa eta basoz inguratuta, Gordexola, eta industrialagoa, herrigune garrantzitsuenekin eta Kadagua ibaiarekin, lehenengoa.



Catálogo de Paisaje Paisaiaren Katalogoa

Balmaseda - Zalla

Lehen aipatu dugunez, beste eskualdeetan abeltzaintza nagusitzen da; hemen, ordea, herrixken eta larreen paisaia-arrastoak mantentzen badira ere, pinudiek hedadura handiak hartu dituzte, mendebaldean eta hegoaldean, batez ere.

Gainera, haran-hondoan hiri-garapen ezegokiak eman dira, neurrigabe okupatu da espazioa, argindar-lineak daude hegal guztietan, transformazio-zentro izugarri bat dago, eta autobia, tarte askotan oso suntsikorra dena, haranean eragin duten loturekin. Arrazoi horiek guztiak aintzat hartzen baditugu, ikus dezakegu Kadaguako Haranaren itxurak eskualde osoari kaltetzen dio.

Badirudi eskualdearen irudiak ospea galdu duela, eta, horregatik, jarduera hauek burutu behar dira: garapen ordenatua ematea; blokeak eta esku-hartzeak etorkizunean ordezkatzea; herriguneen irudia berrantolatzea; ondarea zaintzea; ibaiari galdutako protagonismoa ematea; haran-hondoko larreak balioan jartzea; autobia eta haren loturak hobetzea, paisaia integratzeko; Herrerako haizpitartea balioan jartzea; pinudiak dituzten mantentze-basoetan esku-hartzea eta tokiko basoa berreskuratzea; Gordexolako eta haran-ondoko ondarea babestea; eta hegoaldeko herrixkak eta baserriak defendatzea.

Ezbairik gabe, arearik konplexuena da, eta hiri-antolamendu orokor bat behar du, herriguneen nortasuna babesteko eta jarduera berriak antolatzeko, harana are gehiago honda dezaketean eta nekez berreskura daitezkeen jardueren aurrean.

1.11 Dokumentazio grafikoa

Etapan honetako dokumentazio grafikoa mapa hauekin osatuta dago:

1. Altimetria-mapa
2. Orientazioen mapa
3. Malden mapa
4. Arro bisualen mapa
5. Ikusgarritasuneko eta tarteko ikusgarritasuneko mapa
6. Geologia-mapa
7. Lurzoru-erabileren mapa
8. Paisaiaren balio ekologikoen mapa
9. Paisaiaren balio estetikoen mapa
10. Balio historikoen mapa
11. Sinbolo- eta nortasun-balioen mapa
12. Arkitektura herrikoia mapa
13. Paisaiaren ekoizpen-balioen mapa
14. Paisaia-inpaktuen mapa
15. Paisaia-arriskuen mapa
16. Paisaia-unitateen mapa
17. Paisaia-interes bereziko eremuen mapa
18. Paisaia-ebaluazioaren mapa